

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa, 2023. urterako zerga neurriei buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko abenduaren 23an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa, 2023. urterako zerga neurriei buruzkoa.

#### Zioen azalpena

Foru arau honen xedapenek Arabako zerga sistemari eragiten diote. Foru arau honetan sei titulu daude.

I. tituluan zenbait aldaketa sartzen dira Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, batez ere zergen arloko datuen lagapenari eta Zerga Administrazioari lagundu beharri dagokienez.

II. tituluan zenbait aldaketa egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan, Ondarearen gaineko Zergan, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, Kooperatiben Zerga Araubidean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergan, eta irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubidean eta mezenasgorako zerga pizgarrietan.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru arauaren 23., 24. eta 107. artikuluen aldaketen helburua da arauaren esanahia argitzea, desinposizioa ekar lezakeen okerreko interpretaziorik egon ez dadin.

III. tituluan Europar Batasunaren zuzenbideko xedapen batzuk txertatzen dira Arabako zerga sisteman.

IV. tituluan zenbait aldaketa egiten dira zerga iruzurraren kontrako borrokaren inguruan; denetan aipagarrienak honako hauek dira: jurisdikzio ez-kooperatiboei buruzko araudi berria, eta zergapekoen egoera nabarmenen publikotasunean sartzen diren aldaketak.

V. tituluan ekonomia zirkularra sustatzeko neurriak ezartzen dira.

Azkenik, VI. tituluan jarduera ekonomikoa sustatzeko neurriak ezartzen dira.

### I. TITULUA. ARABAKO ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORRA

#### 1. artikulua Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra

Aldaketa hauek egiten dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 90. artikulua 1. apartatuari e) letra gehitzen zaio; hona testua:

“e) Indarrean dagoen araudia aplikatuta, ekintzen azken onuradunen identifikazioa ezagutzen duten edo jakiteko moduan dauden pertsonak eta entitateek identifikazio horri buruz erregelamenduetan ezartzen diren eskakizunak eta informazio betebeharrak bete beharko dituzte nahitaez Zergen Administrazioan.”

Bi. 92. artikulua 1. apartatuaren c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailezarekin eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin eta zerbitzu erkideekin lankidetzan aritzea Gizarte Segurantzaren sistemako kuoten kotizazioan eta bilketan eta sistemaren konturako prestazioak lortzean eta baliatzean gertatzen den iruzurraren aurka borrokatzeko, eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin lankidetzan aritzea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 308. artikuluan aipatzen diren norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kotizazioak erregularizatzeko.

Gainera, Zerga Administrazioak aseguradun edo onuradun izaera aitortzeko eta kontrolatzeko ardura duen herri administrazioaren organoaren eskura jarriko ditu erabiltzaileen errenta mai-lari buruzko datuak, hain zuzen ere, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunak zorroko prestazioen, ekarpena beharrezkoa dutenen, ordaintzetan izango den partaidetzaren ehunekoa zehazteko beharrezkoak direnak.”

Hiru. 113. artikulua 2. apartatuaren c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“c) Zerga onurak eta pizgarriak eta zerga araubide bereziak onartzea eta bidezkoak direnez egiaztatzea zergen kudeaketako prozeduren bidez.”

Lau. 135. artikulua lehenengo paragrafoaren lehen tartekia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Zergak kudeatzeko prozeduren esparruan burutzen diren eginkizunak alde batera utzi gabe, eta prozedura horietan egiten diren jarduketak kontuan hartuta, zergen arloko ikuskapenaren barruan honako hauek egiteko administrazio eginkizunak daude, besteak beste:”

Bost. 147. artikulua 4. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“4. Erruduntasun testigantza jurisdikzio eskumendunari ematen zaionean edo espedientea Fiskaltzari bidaltzen zaionean, honako foru arau honetako 248. artikulua dioenari jarraiki, helarazpen horrek ondore hauek sorraraziko ditu ikuskapen jarduketan iraunaldiari dagokienez:

a) Jarduketa horiek zenbatzeko epealdia eteten duen bidezko arrazoitza hartuko da.

b) Artikulu honetako 1. apartatua xedatutakoaren arabera, epealdia luzatzea ahalbidetzen duen kausatza hartuko da, baldin eta, 249. artikulua 3. apartatua, 251. artikulua 2. apartatua eta 255. artikulua 2. apartatuaren c) letra aipatzen diren arrazoi-tako bat gertatu delako, administrazio prozedurak aurrera jarraitu behar badu.”

Sei. 147. artikulua 5. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“5. Ebazpen judizial edo ekonomiko administratibo batek edo Ekonomia Itunean ezarritako Arbitraje Batzordearen erabaki batek ikuskapen jarduketan atzeraeragina agintzen duenean, jarduketak atzera eramaten diren unetik artikulu honen 1. apartatua aipatzen den epealdia amaitu baino lehen amaitu beharko dira jarduketa horiek, edo sei hilabeteko epealdian, hura laburragoa bada. Ebazpena betearazteko eskumena duen organoak espedientea jasotzen duenetik hasiko da kontatzen epealdi hori.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa administrazio prozeduretan ere aplikatuko da, baldin eta, epealdia luzatu ondoren, erruduntasun testigantza eskumenera jurisdikziora pasatu bada edo espedientea Fiskaltzari igorri bazaio eta jarraitu egin behar badute, 249. artikulua 3. apartatua, 251. artikulua 2. apartatua eta 255. artikulua 2. apartatuaren c) letra aipatzen diren arrazoi-tako bat gertatu delako. Kasu horretan, epealdi hori prozedurarekin aurrera egin behar duen organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzulitako espedientea jasotzen duenetik hasiko da zenbatzen.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako administrazio espedientea edo ebazpen judiziala zein egunetan jaso den jakinarazi behar zaio zergapekoari, bidezko komunikazioaren bidez edo aurrekoak jaso ondoko egiaztapen eta ikerketa prozeduraren baitan sinatzen den lehenengo eginbidearen bidez.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesak zenbatzen hasteko eguna, foru arau honen 26. artikuluan 2. apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz, baliogabetutako likidazioari egokituko zitzaion egun bera izango da, eta interesa likidazio berria eman arte sortuko da.”

Zazpi. 169. artikuluan 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Premiamendu prozedura errekurtsoak eta administrazioarekiko diru erreklamazioak arautzen dituzten xedapenetan ezarritakoaren arabera eta bertako baldintzak betez gero etengo da, baita zergen araudian eta konkurtso araudian ezarritako gainerako kasuetan ere.”

Zortzi. 249. artikuluan 1. apartatuari d) letra gehitzen zaio; hona:

“d. Administrazioak zerga zorra likidazioaren bidez zehazteko duen ahala preskribatuta edo iraugita dagoenean.”

Bederatzi. 249. artikuluan 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Aurreko kasuetan, deliturik badagoela hauteman ezean, zerga administrazioak jarduketak hasarazi edo garatuko ditu jurisdikzio organoek foru arau honen 147. artikuluan 1. apartatuan ezartzen den epealdia, artikuluan horren beraren 4. paragrafoaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta, amaitu arteko aldi edo, hori luzeagoa bada, sei hilabeteko epealdian frogatuztat emandako egitateetan oinarriturik. Aipatutako epea zenbatzen hasiko da prozedurari eutsi behar dion organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzultitako espedientea jasotzen duen unetik aurrera.

Preskripzio aldiak berriz hasiko dira zenbatzen foru arau honen 67. artikuluan 7. artikuluan ezartzen den bezala.”

Hamar. 251. artikuluan 2. apartatuaren hirugarren paragrafoa honela geratzen da:

“Prozedurak amaitu beharko du jarduketak atzera eramaten diren unetik foru arau honen 147. artikuluan 1. apartatuan aipatzen den epealdia amaitu arte, artikuluan beraren 4. apartatuaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta, edo sei hilabeteko epealdian, hau luzeagoa bada. Epealdi hori zenbatzen hasiko da prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskudunak ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzultitako espedientea jasotzen duenetik.”

Hamaika. 255. artikuluan azken laugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“Jarduketak atzera eramaten diren unetik foru arau honen 147. artikuluan 1. paragrafoan aipatzen den epea amaitu arteko epean amaitu beharko da prozedura, artikuluan beraren 4. paragrafoaren b) letran ezarritakoa kontuan hartuta betiere, edo sei hilabeteko epean, azken hori luzeagoa bada, jarduketa judizialak edo Fiskaltzak itzultitako espedientea jasotzen direnetik kontaktzen hasita.”

## II. TITULUA. ZENBAIT ZERGA ALDATZEA

### 2. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Lehenengoa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 93. bis artikulua aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

#### “93 bis artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitzan eguzki energia elektrikoaren homikuntzarako inbertsioak egiteagatik

1. Zergadunek zergaldian honako elementu hauek erosteko ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute:

a) Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen aginduan zehazten diren ekipo osoak, eguzki energia elektriko fotoboltaikoa sortzeko erabili ahal badira.

b) Sozietate xede nagusia aurreko a) letran aipatzen diren inbertsioen bidez energia iturriak eraginkortasun handiagoarekin aprobetxatzeko proiektuak egitea den entitateen akzioak, partaidetzak edo funts propioetako partaidetza ematen duten bestelako tresna guztiak.

b) letra honetan ezartzen diren tresnak hura eratzen denean sinatu behar dira edo, bestela, eratu ondoko bost urteetan egiten den kapital zabalkuntza batean.

2. Kenkariaren oinarrian honako hauek sartzen dira:

a) Aurreko 1. apartatuaren a) letran arautzen den kasuan, egindako inbertsioen zenbatekoa.

b) Aurreko 1. apartatuaren b) letran arautzen den kasuan, entitateko funts propioetako partaidetza ematen duen tresnaren eskuraketa kostua.

Aurreko a) eta b) letretan xedatzen denaren arabera kalkulatzen den kenkariaren oinarritik zergadunak elementu horiek eskuratzeko jasotako dirulaguntza salbuetsien zenbatekoa kenduko da.

Energiaren kontsumoak eragiten dituen gastuak ez dira kengarriak izango.

3. Zergadun bakoitzak zergaldi guztietan aurreko 1. apartatuko kontzeptuengatik kentzen dituen zenbatekoen batura ezin da izan 3.000,00 euro baino gehiago.

4. Kuota osoa aski izan ez eta kentzen ez diren kopurua hurrengo lau zergaldietan aplikatu ahal izango dira. Aurreko 3. apartatuan ezartzen diren mugak aplikatu beharko dira.

5. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira bost urtez gutxienez:

a) 1. apartatuan aipatzen diren elementuen bidez lortzen den energia zergadunaren ohiko etxebizitzaren hornikuntzarako erabili beharko da.

Hori dela-eta, ohiko etxebizitzat hartzen dira errentari, azpierrenerari edo gozamedun gisa okupatzen diren etxebizitzak.

b) Kenkarirako eskubidea ematen duten aurreko 1. apartatuko elementuak zergadunaren ondarean egon beharko dira aldi horretan.

c) 1. apartatuaren b) letrako kasuan, zergadunak ezin eduki izango du, zuzenean zein zeharka, entitatearen kapital sozialaren edo boto eskubideen ehuneko 10 baino gehiago. Zergaduna familia unitate batean badago, muga hori aplikatzean kide guztien partaidetzat hartuko dira kontuan.

Apartatu honetan ezartzen den bost urteko epealdia a) letran zehazten diren ekipo osoak abian jartzen direnetik edo 1. apartatuaren b) letran ezartzen diren tresnak eskuratzeko direnetik hasiko da zenbatze, kasuan kasukoa.

6. Aurreko apartatuan aipatzen diren betebeharrak betetzen ez badira, heriotza gertatzen denean ez beste kasu guztietan, ordaindu egin beharko da oker aplikatutako kenkariaren zenbatekoa, bai eta hari dagozkion berandutze interesak ere. Zenbat ordaindu behar den kalkulatzeko, kendutako zenbatekoari baldintza bete ez den zergaldiko kuota diferentziala batu behar zaio. Hala ere, zergadunak diru sarrera hori lehenagoko egitea hautatu ahal izango du.

Baldin eta aurreko apartatuan ezartzen den bost urteko aldia amaitu baino lehen horren a) eta b) letretan ezartzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, ezin izango da aplikatu aurreko paragrafoan arautzen den erregularizazioa, honako hauek gertatu ezean: baldintza betetzen ez den egunaren aurreko edo ondoko bi urteetan zergadunak aurrean egindako inbertsioaren zenbateko bera, gutxienez, aurreko 1. apartatuan aipatzen diren elementuetan berrinbertitzea, eta inbertsio horren bidez aurreko apartatuan ezartzen den aldia bete ahal izatea, artikulu honetan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak beteta.

Hori dela-eta, baldintza bete ez den eguna izango da zergadunaren ohiko etxebizitzak izaera hori galtzen duen eguna, hornidura amaitzen den eguna edo elementuak eskualdatzen diren eguna.

Inbertsio berriak ez du emango artikuluko honetako kenkaria aplikatzeko eskubiderik, aurreko inbertsioetik kenkaririk sortu ez duen zatiari dagokionaz besterik.”

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 9. artikuluko 27. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“27. Erregelamendu bidez ezartzen diren laguntza publikoak, sektore publikoak emanak.”

Bi. 9. artikuluko 39. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“39. Bizitzako gutxieneko sarrera ezarri duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzako gutxieneko sarrera gisa jasotakoak.”

Hiru. 17. artikuluko 2. apartatuaren g) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“g) Merkatuko balio normalaren eta langileek akzioak eta partaidetzak eskuratzeko duten eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa, eskurapenak eskuratzaileri foru arau honen 89. artikuluan edo 89 bis artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dienean, bai eta merkatuko balio normalaren eta langileek enpresak edo entitateen partaidetzak edo akzioak eskuratzeko ordaindutako eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa ere, foru arau honen 41. artikuluko 2. apartatuaren d) letran exijitutako beharkizunak betetzen direnean.

Foru arauaren 41.2 d) artikuluan edo 89. artikuluan edo 89 bis artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen ez badira enpresa edo akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoko bost urte-etako edozein egunetan, zergadunak bere zerga egoera erregularizatu beharko du baldintza betetzen ez den ekitaldiko autolikidazioan. Erregulazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.”

Lau. 19. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Lanaren etekin osoan kapitulu honetako aurreko artikuluetan definitu diren etekin guzti-guztiak sartzen dira, oro har.

Foru arau honen 18. artikuluko a) letran aipatzen diren prestazioak, errenta gisa jasoz gero, eta zerga oinarria murrizten duten enpresaren kontribuzio egotziak osorik zenbatu behar dira. Osorik zenbatuko dira, halaber, lanetik kanporatzeagatik edo lana utzarazteagatik errenta gisa jasotzen diren kalteordainetatik zerga honen kargatik salbuetsitako zenbatekoa gainditzen dutenak, foru arau honen hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezartzen dena gorabehera.”

Bost. 19. artikuluko 2. apartatuaren d) letra ezabatzen da.

Sei. 37. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

### **“37. artikulua. Kapital higigarriaren beste etekin batzuk**

Honako etekin hauek, diruzkoak zein gauzazkoak:

a) Jabetza intelektualaren ondoriozko etekinak, zergaduna autorea ez denean, eta zergadunak egindako jarduera ekonomikoari atxikita ez dagoen jabetza industrialaren ondoriozkoak.

b) Laguntza teknikoa emanda lortzen diren etekinak, jarduera ekonomiko baten esparruan ematen denean izan ezik.

c) Ondasun higigarriak, negozioak eta meatzeak errentatuta lortzen diren etekinak, eta azpierrementariek azpierrementamenduei esker jasotzen dituztenak, azpierrementamendua jarduera ekonomiko ez bada.

d) Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo hura erabiltzeko baimena edo adostasuna emanda lortuak, eskubidea sortzen duenak lortzen dituztenean edo jarduera ekonomiko batean sortzen direnean izan ezik.”

Zazpi. 41. artikulua 2. apartatuaren c) letraren lehen paragrafoaren lehen puntua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“c) Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauaren 6. artikulua lehen sei apartatuetan aipatzen diren enpresen edo entitateen akzioen eta partaidetzen kostu gabeko eskualdaketa ezkontidearen, izatezko bikotekidearen, aurreko edo ondorengo ahaide baten alde edo laugarren gradura arteko alboko ahaide baten alde egiten denean (odol ahaideak, ezkontza bidezko ahaideak, izatezko bikotearen ondoriozkoak zein adopzioaren ondoriozko ahaideak), honako baldintza hauek betetzen badira:”

Zortzi. 41. artikulua 2. apartatuaren c) letraren azken aurreko paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hala ere, c) letran ezarritakoa gorabehera, akzioen eta partaidetzen eskualdaketatik, ulertuko da ondare irabazia edo galera dagoela jarduera ekonomikoa egiteko behar ez diren aktiboen balorearen jardueratik ez datozen zorren zenbatekoa kenduta eta entitatearen ondare garbiaren balorearen artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiek berak ezarriko dira partaidetutako entitatearen partaidetzak baloratzeko, entitate edukizaillearen partaidetzen balorea zehazteko Aktibo bat jarduera ekonomikoa egiteko behar denez ebazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauak 6. artikulua leugarren apartatua xedatzen duena aplikatuko da.”

Bederatzi. 42. artikulua g) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“g) Entitateetako akzioak edo partaidetzak eskualdatzean agerian gelditzen diren ondare irabazien ehuneko 50, hain zuzen ere horiek eskuratzeagatik zergadunak foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplika dezakeenean, betiere ondorio horietarako aipatutako aginduaren 3. eta 7. apartatuetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoa xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak foru arau honen 90. artikulua 6. apartatua aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Salbuespena ondare irabaziaren ehuneko 100era iritsiko da, zergadunak letra honen lehen paragrafoan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzean lortutako zenbatekoa berriro inbertitzen duenean, paragrafo horretan aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratzean, betiere eskualdatze horren datatik gehienez ere bi urteko epealdian. Kasu horretan, ezin izanen da aplikatu foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aipatutako berrinbertsioa gauzatzen den akzio edo partaidetzei dagokienez.

Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotakoa baino gutxiago denean, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionalari bakarrik.

Letra honetan aipatzen den ehuneko 100eko salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, Zerga Administrazioak berrinbertsio plan bereziak onartu ahal izango ditu, hori justifikatzen duten inguruabar espezifikoak daudenean.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direla ulertuko da frogatzen denean ezen, bere ezaugarri ekonomikoengatik, inbertsioa nahitaez egin behar dela bi urtetik gorako epealdian, oro har ezarritako eskualdaketa datatik aurrera, edo, gerora sortutako eta behar bezala arrazoitutako inguruabarrengatik, berrinbertsiorako prozesua ezin denean osatu aipatu epealdian.

Berrinbertsio plan berezia onesteko eskaera egingo da arau zehazten diren prozedura eta baldintzak betez. Ondare elementua edo partaidetzak eskualdatu aurreko edo ondoko sei hilabeteko aldi aurkeztuko da eskaera hori, salbu eta ezusteko inguruabarren ondorio denean. Halakoetan, oro har ezarritako eskualdatze datatik aurrera bi urteko epealdia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskaera, eta egindako berrinbertsioaren zatia eta hura osatzeko behar den denbora plana zehaztu beharko dira.”

Hamar. 57. artikulua 2. apartatuaren h) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“h) Aseguru hartzaileak inbertsioaren arriskua bereganatzen duen aseguru kontratuetan hauxe izango da egotzi beharreko kapital higigarriaren zergaldiko etekina, foru arau honetako 36. artikuluan aipatzen dena: polizari atxikitako aktiboek zergaldi hasieran duten likidazio balioaren eta zergaldi amaieran dutenaren arteko diferentzia. Egotzitako zenbatekoak kontratu horien ondoriozko diru kopuruen etekina murriztuko du.

Arau berezi hau ezin da aplikatu honako inguruabar hauetako bat gertatzen den kontratuen errenten aldi egozketarako:

a) Hartzaileari polizari lotutako inbertsioak aldatzeko ahalmena ez ematea.

b) Hornidura matematikoak honako hauetan inbertitzea:

Lehenengoa: Inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak, kontratuetan aurrez zehaztuak, betiere inbertsio kolektiboko entitateak badira, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea egokituak edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EEE Zuzentarauak babestutakoak.

Bigarrena: Aseguru entitatearen balantzean bereizita islatutako aktibo multzoak, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Banan agerrarazitako aktibo multzo bakoitzeko aktiboak aseguru entitateak zehaztu behar ditu beti. Horretarako aseguru entitateak erabateko askatasuna edukiko du aktiboak hautatzeko, soil-soilik aktibo multzoaren arriskuei buruzko alde aurretiko irizpide orokorrei edo beste inguruabar objektibo batzuei loturik.

2. Aktibo multzo bakoitzeko inbertsioak entitate aseguratzaile eta berraseguratzailen antolamendu, ikuskaritza eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak ezarritako arauak betetzen dituzten aktiboetan egin behar dira. Inola ere ezingo dira izan ondasun higiezinak edo higiezinaren eskubide errealeak.

Dena den, aktibo multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertu behar da haien helburua denean Europako Batasuneko bigarren mailako balore merkatu ofizial batean burtsako edo errenta finkoko indize jakin bat erreproduzitzera zuzenduta dagoen inbertsio politika bat garatzea.

Hartzaileak aktibo multzo berezien artean aseguru zuzkidura automatikoa zeinetan inbertitu behar den hautatu ahal izango du, besterik gabe; hots, ez du izango hautatzen duen multzo bakoitzeko aktiboak hautatzerik

Kontratu hauetan hartzaileak eta aseguratuak kontratuetan berariaz ezarritako talde inbertsioko entitateen edo aktibo multzo berezien artean hautatu ahal izango du polizan jasotako zehaztapenei jarraiki, eta inolaz ere ezin izango da berezitasun singularrik ezarri hartzaile edo aseguratu bakoitzarentzat.

h) letra honetan aipatzen diren baldintzak kontratuaren indarraldi osoan bete behar dira.”

Hamaika. 70. artikulua 1. apartatuaren 4. zenbakiaren b) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“b) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikulua 8. apartatua pentsio planei dago-kienez jasotako kasuetan bakarrik gauzatu ahal izango dira mutualisten eskubide kontsolidatuak.”

Hamabi. 70. artikulua 1. apartatuaren 7. zenbakiaren 2. paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Halaber, zergadunarekin zuzeneko edo alboko lerroko ahaidetasun harremana (laugarren gradurainokoa, hori barne) duten pertsonak, edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak, edo haren kargura tutoretza edo harrera erregimenean dauden pertsonak, edo hari dagokionez ordezkariak ahalmena duen kuradoretza egiten dutenek aseguru horiei ordaindutako primak murriztu ahal izango dituzte beren zerga oinarri orokorrean, foru arau honen hurrengo artikuluan ezarritako murrizketa muga kontuan hartuta.”

Hamahiru. 72. artikulua 1. apartatuaren lehen tartekia eta a) letra aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“1. Foru arau honen 70. artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala dutenen eta ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun psikikoa dutenen alde egindako ekarpenak, baita Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan ordezkari ahalmena duten eta kuradoretzaren mende dauden pertsonen alde egindakoak ere, zerga oinarri orokorrean murriztu ahal izango dira, gehieneko muga hauekin:”

“a) Desgaitasuna duten pertsonen alde urtean egindako ekarpenak, gehienez 8.000,00 euro ekarpena egiten duen pertsona bakoitzeko. Hori gorabehera, haiek ere beren ekarpenak egin ditzakete gizarte aurreikuspeneko sistemetara, foru arau honen 71. artikuluan ezartzen diren mugen barruan.

Hauek egin ditzakete ekarpenak: desgaitasuna daukanaren ahaideek (zuzenekoek zein hiru-garren gradurainoko albo lerrokoek), ezkontideak edo izatezko bikotekideak, harekin tutoretza edo harrera lotura duten pertsonak, eta hari dagokionez ordezkari ahalmenarekin kuradoretzan aritzen direnek.

Kasu horietan pertsona desgaitua onuradun bakar izendatuta egon behar da modu ezeztazinean, edozein gertakizunetarako.

Hala ere, desgaitasuna daukan pertsona hiltzen bada, gertaera horrek alarguntasun edo zurztasun prestazioetarako edo ekarpenak egin dituztenentzako eskubidea sortu ahal izango du egindako ekarpenen proportzioan.”

Hamalau. 73. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

**“73. artikulua. Zerga batera ordaintzeagatik aplikatzen den murrizketa**

1. Foru arau honen 97. eta 98. artikuluetan xedatzen denaren arabera baterako tributazioa hautatuz gero, 4.682,00 euroko murrizketa egin daiteke urteko autolikidazioko zerga oinarri orokorrean.

2. Aurreko apartatuko murrizketa 4.067,00 eurokoa izango da foru arau honetako 98. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren familia unitateen autolikidazioan.”

Hamabost. 75. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Likidazio oinarri orokorrari honako eskala honetan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA / GEHIENEZ (EUROAK)	KUOTA OSOA EUROAK	LIKIDAZIO OINARRIA, GAINERAKOA / GEHIENEZ (EUROAK)	KARGA TASA EHUNEKOA
0,00	0,00	17.280,00	23,00
17.280,00	3.974,40	17.280,00	28,00
34.560,00	8.812,80	17.280,00	35,00
51.840,00	14.860,80	22.190,00	40,00
74.030,00	23.736,80	28.500,00	45,00
102.530,00	36.561,80	34.140,00	46,00
136.670,00	52.266,20	62.570,00	47,00
199.240,00	81.674,10	hortik aurrera	49,00

”

Hamasei. Azken paragrafo berri bat gehitzen zaio 75. artikuluko 3. apartatuari; hona:

“Gainera, baldin eta sozietateen zergaren araudian xedatzen denaren arabera jarduera ekonomikoen aurreko urteetako saldo negatiboak konpentsatzen badira, batez besteko karga tasa orokorraren eta sozietateen gaineko zergaren karga tasa inarri orokorraren arteko kenketaren emaitzako tasa diferentzia jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboaren osagai diren ondare irabazien zenbatekoari aplikatzearen emaitzako zenbatekoari aplikatuko zaio.”

Hamazazpi. 77. artikulua izenburua eta edukia aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

**“77. artikulua. Kuotaren murrizketa orokorra, murrizketa hutsik gelditzeko arriskuan dagoen eremuan edo herrigunean bizitzeagatik, eta aparteko murrizketa**

1. Zergadunek 1.544,00 euro kendu ahal izango dituzte kuotan, autolikidazio bakoitzean, foru arau honen 74. artikuluan ezartzen denarekin at etorritz.

2. Ohiko etxebizitza foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo herriguneetako batean duten zergadunek aurreko apartatuan aipatzen den murrizketa ez ezik beste bat ere egin ahal izango dute kuotan hutsik gelditzeko eremuan edo herrigunean bizitzeagatik: 107,00 euro autolikidazio bakoitzeko.

3. 2023ko zergaldiko autolikidazioan, zerga oinarri orokorra 30.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa duten zergadunek artikulua honen aurreko apartatuen arabera bidezkoak diren murrizketak ez ezik beste bat aplikatu ahal izango dute kuotan: 200,00 euro autolikidazioko.

30.000,00 eta 35.000,00 euro bitarteko zerga oinarri orokorra duten zergadunen kasuan, aurreko paragrafoan aipatzen den murrizketa honako eragiketa hauen emaitza izango da autolikidazio bakoitzean: zerga oinarri orokorretik 30.000,00 euro kendu, horren emaitzako kopurua 0,04z biderkatu, eta honen emaitzako kopurua 200,00 eurotik kendu.”

Hemezortzi. 79. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatu daiteke:

a) 651,00 euro urtean lehenengoagatik.

b) 806,00 euro urtean bigarrenagatik.

c) 1.359,00 euro urtean hirugarrenagatik.

d) 1.606,00 euro urtean laugarrenagatik.

e) 2.098,00 euro urtean bosgarrenagatik eta hurrengo bakoitzagatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko beste 376,00 euro kenduko dira urtean, aurreko zenbakiaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera.

Zergadunarekin bizi den sei urtetik hamasei urtera bitarteko ondorengo bakoitzeko aurreko idatz zatiaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera beste 60,00 euro kendu daitezke urtean. Kenkari hori ezin da bateratu aurreko paragrafoan ezarritakoarekin.”

Hemeretzi. 81. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Urte natural osoan etengabe eta jarraian zergadunarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik 313,00 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.”

Hogei. 81 bis artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Zergaren sortzapen egunean 39/2014 Foru Dekretuan (abuztuaren 1ekoa, Arabako autonomia-eremurako eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituen) arautzen den laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titular diren zergadunek, bertan eta beraren garapenean ezartzen diren baldintzak betez gero, kenkaria aplikatu ahal izango dute laguntzaile pertsonala kontratatzen dutenean. Kenkariaren zenbatekoa zergadunaren mendekotasunaren edo desgaitasunaren eta inoren laguntza behar izatearen arabera izango da:

MENDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA	KENKARIA (EUROAK)
Desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa Mendekotasun ertaina (I. gradua)	319,00
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun larria (II. gradua)	531,00
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 40 puntutik gora besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun handia (III. gradua)	1.061,00

”

Hogeita bat. 82. artikularen 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Desgaitasuna duen edo mendekotasunean dagoen zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta zenbatekoa mendekotasunaren edo desgaitasunaren graduaren eta ezinduak behar duen laguntzaren arabera izango da (desgaitasunaren gradua eta laguntzaren beharra arau bidez ezarriko dira). Hona hemen taula:

MENDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA	KENKARIA (EUROAK)
Desgaitasuna ehuneko 33koa edo handiagoa eta ehuneko 65etik beherakoa	866,00
Desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa Mendekotasun ertaina (I. gradua)	1.237,00
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun larria (II. gradua)	1.483,00
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 40 puntutik gora besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun handia (III. gradua)	1.850,00

Mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua eta laguntza behar izateagatik puntuak neurtzeko honako bi hauek ezartzen dutena aplikatuko da: abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua, I. eranskina; otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua, mendekotasuna baloratzeko baremoa onartzen duena (baremo hori abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzekoak).

Kenkari bera aplika daiteke desgaitasuna edo mendekotasuna daukan ezkontideagatik edo izatezko bikotekideagatik, apartatu honetan ezarritako betekizunak betez gero.”

Hogeita bi. 82. artikularen 2. apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Halaber, kenkaria aplikatuko da desgaitasunen edo mendekotasunen bat duen pertsona zergadunarekin lotuta dagoenean adingabeen babesaren arloan eskumenak dituen erakunde publikoan formalizatutako tutoretza edo harrera arrazoiengatik, edo zergadunak, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, desgaitasuna duenari dagokionez ordezkari ahalmenak dituen kuradoretza gauzatzen duenean, apartatu honetan ezarritako gainerako inguruabarrak gertatzen badira.”

Hogeita hiru. 83. artikularen 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 375,00 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak hirurogeita hamabost urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 682,00 eurokoa izango da.

Apartatu honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da zergadunaren zerga oinarria ez izatea 20.000,00 eurotik gorakoa.

2. 20.000,00-30.000,00 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita bost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 375,00 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000,00 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0375 eginez ateratzen den emaitza.

3. 20.000,00-30.000,00 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita hamabost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 682,00 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000,00 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0682 eginez ateratzen den emaitza.”

Hogeita lau. 85. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

**“85. artikulua. Desgaitasuna duen pertsona baten ondare babestura egindako ekarpenengatik aplika daitekeen kenkaria**

1. Zergadunek ehuneko 30eko kenkaria aplikatu ahal izango dute (urtean 3.000,00 euro gehienez) pertsona desgaitu baten ondare babestura egindako ekarpenengatik. Horrela dago ezarrita Pertsona desgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga arautegia aldatzen dituen azaroaren 18ko 41/2003 Legean.

Aurreko paragrafoan ezartzen den muga babestutako ondarean ekarpenen bat jasotzen duen pertsona desgaitu bakoitzeko aplikatuko da.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria honako zergadun hauek aplikatu ahal izango dute: desgaitasuna daukan pertsonaren zuzeneko zein alboko ahaideek, laugarren gradura-inokoek, bai eta haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak, harekin tutoretza edo harrera lotura duten pertsonak, eta, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluan xedatzen den esparruan, hari dagokionez ordezkariak ahalmenarekin kuradoretzan aritzen direnak.

Halaber, kenkari hau testamentu ahalordea edo gozamen ahala erabiltzeko zain dauden jarauntsiek ere aplikatu ahal izango dute, baldin eta ekarpenik egiten badute desgaitasuna daukan pertsonaren ondare babestura indarreko legeriarekin bat etorriz.

Pertsona desgaituak berak bere ondare babestura egindako ekarpenek ez dute kenkarirako eskubiderik ematen.

3. Ekarpena diruzkoa ez bada, zenbatekoa honako hau izango da: Irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 21. artikuluan ezartzen dena aplikatzearen emaitza.

4. Pertsona desgaitu baten ondarrera egiten diren ekarpenei dagozkien ondasunen eta esku-bideen eskuraketak salbuetsita daude oinordetza eta dohaintzen gaineko zergatik.”

Hogeita bost. 87. artikuluan 5. apartatuaren c) letraren bigarren paragrafoa eta azken paragrafoa aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“Gainera, kontzeptu honetan sartzen dira letra honen azken paragrafoan aipatzen diren pertsonak errentari, azpierrenerari edo gozamendun gisa okupatutako etxebizitzak egokitzeko egiten diren obrak eta instalazioak.”

“Obra horiek zergadun ezinduak edo mendekoak, ezinduta dagoen edo mendeko den aurreko edo ondorengo batekin edo ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin bizi den zergadunak eta ezindu edo mendeko batekin bizi den zergadunak (baldin eta ezinduak foru arau honen 82. artikuluan araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badiu) egin behar ditu, bai eta ohiko etxebizitzaren osagai erkideak aldatzeko obrak ordaintzera behartuta dauden jabeek ere.”

Hogeita sei. 89. artikuluan 1. apartatuaren a) eta b) letrak eta a') letraren lehen paragrafoa aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“a) Langile gisa jarduten duten entitatea, betiere eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez bitan lan egin badute bertan.”

“b) Langile gisa jarduten duten entitatearen taldeetako edozein. Kasu honetan, ezinbesteko beharrezkoa izango da eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez bitan jardun izana langileek taldeko sozietateetan, eta, ondorio horietarako, sozietate taldeko entitate multzoa hartuko da kontuan.”

“a') Apartatu honen a) eta b) letretan aipatzen diren entitateetako langileak izatea partaide bakarrak, eta langile horiek eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hiru urteetan bertan, letra horietan ezartzen den bezala.”

Hogeita zazpi. 89. artikulua 4. apartatuaren e) letraren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“e) Akzio edo partaidetzak 1. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren entitateetan eskuratzen edo harpidetzen badira, langile bakoitzak zuzenean edo zeharka entitateetan daukan partaidetza, barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikote lagunarena, aurrekoena edo adoptatzaileena, ondorengoena eta adoptatuena edo hirugarren gradurainoko alboko ahaideena, ezin da izan ehuneko 40tik gorakoa apartatu honen c) letran ezartzen den aldian. Entitatea talde bateko kide bada, aurreko baldintza taldea osatzen duen entitate bakoitzari dagokionez bete behar da.”

Hogeita zortzi. 89 bis artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Zergadunek kenkaria aplikatu ahal izango dute langile gisa jarduten duten entitatearen edo haren taldeko beste edozein entitatearen akzioak erosteagatik edo harpidetzeagatik, baldin eta erosketaren aurreko bost urteetatik bitan gutxienez entitatean lan egin badute: zergaldian horretarako eskudirutan ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria gizonak eta 20koa emakumeak.”

Hogeita bederatzia. 89 bis artikulua 3. apartatuaren f) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“f) Aurreko d) letrako epealdian langile bakoitzak entitatean zuzenean edo zeharka daukan partaidetza (barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena, aurrekoena edo adoptatzaileena, ondorengoena eta adoptatuena eta hirugarren gradurainoko alboko ahaideena) ezin da izan ehuneko 40tik gorakoa.”

Hogeita hamar. 90 quater artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Zergadunek lanean ari diren entitateko akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian eskudirutan ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, gizonak badira, edo ehuneko 20koa, emakumeak badira.

Urteko kenkaria ezingo da izan 1.200,00 euro baino handiagoa, eskuratzailerak gizonakoa denean, edo 1.800,00 euro baino handiagoa, emakumeakoa denean.

Kuota nahikorik ez egoteagatik kenkaririk aplikatzen ez zaien diru kopuruak hurrengo lau zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, aurreko muga errespetatuz.

Segidako zergaldietan zergadun bakoitzak artikulua honen arabera aplikatzen dituen kenkarien batura ezin da izan 6.000,00 euro baino gehiago, gizona bada, edo 8.000,00 eurotik gorakoa, emakumea bada.”

Hogeita hamaika. 90 quater artikulua 2. apartatuaren f) eta g) letrak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“f) Langile bakoitzak zuzenean edo zeharka entitatean daukan partaidetza (ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena, aurrekoena edo adoptatzaileena, ondorengoena eta adoptatuena, eta hirugarren gradurainoko alboko ahaideena sartuta) ezin da izan ehuneko 40 baino gehiago.”

“g) Guztira, langileek ehuneko 40ko partaidetza eduki behar dute entitatean gutxienez.”

Hogeita hamabi. 90 quater artikulua 2. apartatuari h) letra gehitzen zaio; hona:

“h) Entitatea eratzeko akzioak edo partaidetzak harpidetzen direnean, gutxienez hiru langilek parte hartuko dute.”

Hogeita hamahiru. 98. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Familia unitateko kideak dira legez bananduta ez dauden ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak, eta honako hauek:

a) Adingabeko seme-alabak, gurasoen edo adoptatzaileen baimenarekin beren kontura bizi direnak izan ezik.

b) Adinez nagusiak diren seme-alabak, baldin eta, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, ordezkapen ahalmena duen kuradoretza bati lotuta badaude, eta, betiere, hori gurasoek edo adoptatzaileek gauzatzen badute.”

Hogeita hamalau. 102. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letrak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“a) Lanaren etekin gordinak; urtean 14.000,00 euro gehienez, banakako tributazioan. Bate-rako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) Lanaren etekin gordinak; 14.000,00 eta 20.000,00 euro bitartean urtean banakako tributazioan, hurrengo 3. apartatuan aipatzen diren egoeretako batean sartuta daudenentzat izan ezik. Bate-rako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.”

Hogeita hamabost. 102. artikulua 3. apartatuaren a) eta b) letrak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“a) Ordaintzaile baten baino gehiagoren lanaren etekinak jaso badituzte.

Hala ere, 20.000,00 euro arteko laneko etekin gordinak jasotzen dituzten zergadunek ez dute aitorpena aurkeztu beharrik izango, baldin eta zenbatekoaren araberrako hurrenkerako bigarren ordaintzailearengandik eta gainerako ordaintzaileengandik jasotako zenbatekoen batura, guztira, urtean 2.000,00 euro baino handiagoa ez bada.”

“b) Ordaintzaile bakar baten lanaren etekinak jaso badituzte, baina lan edo administrazio kontratu bat baino gehiago izenpetu badute, indarrean dagoen ekitaldian edo luzapenean.”

Hogeita hamasei. 105. artikulua 1. apartatuari i) letra gehitzen zaio; hona:

“i) Foru arau honen 91. artikuluan arautzen den mezenasgo jardueren ondoriozko kenkariak aplikatzea hautatzea.”

Hogeita hamazazpi. 116. artikulua k) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“k) Sektore publikoari, ematen dituen laguntza publiko, prestazio eta dirulaguntzei dagokienez.”

Hogeita hemezortzi. Hamaikagarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hamaikagarrena. Kuradoretzaren menpe dauden eta ordezkari ahalmena duten pertsonen zerga araubidea.

Foru arau honetan ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten desgaituen alde aurre-ikusitako xedapen espezifikoak desgaitasuna duten pertsoneri aplikatuko zaizkie, baldin eta, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, ordezkari ahalmena badute eta kuradoretzaren mende badaude, maila horretara iritsi ez arren.”

Hogeita hemeretzi. Hogeita batgarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuaren b) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“b) Enpleguko Zerbitzu Publiko Nazionaletik, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaletik edo horren ordezkari erakundeetatik jasotako zenbatekoen osagarriak izatea. Tratamendu berbera emango zaie zergadunaren inguruabar bereziak direla eta ekitaldian erakunde horietatik inolako prestaziorik lortu ez duen kasuetan jasotako kopuruei.”

Berrogei. Hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren bigarren zenbakiaren 5. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“5. Zergaren kuota likidoa kalkulatzeko, kuotan aplikatuko diren kenkari bakarrak foru arau honen 51. artikulua 8. apartatua, 85. artikulua, 88. artikulua eta 92. artikulua ezarritakoak izango dira.”

Berrogeita bat. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hogeita zortzigarrena; hona:

“Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzea.

Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko alde aurretik ezarritako neurriak ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bosgarren xedapen iragankorrean eta hura garatzen duten xedapen guztietan ezarritakoaren arabera berrikusten diren bitartean (lege horren bidez, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko legedi zibil eta prozesala aldatzen da), lehen ordezkari-tzahalmena duten eta kuradoretzaren menpe dauden pertsonak eta foru arau honen 70., 72., 82. eta 85. artikuluetan eta hamaikagarren xedapen gehigarrian aipaturiko ordezkari-tzahalmen horiek erabiltzen dituzten pertsonak aipatzean, hauexek direla ulertu behar da, hurrenez hurren: Kode Zibilean ezarritako arrazoien ondorioz judizialki deklaraturako ezgaitasuna duten pertsonak eta aurrekoei dagokienez tutore kargua betetzen dutenak.

Halaber, aurreko paragrafoan aipatzen den aldian, foru arau honen 98 artikuluan 1. apartatuaren b) letran xedaturakoaren ondorioetarako, familia unitateko kideak izango dira luzaturako edo birgaitutako guraso ahalaren mende dauden legez ezgaitutako seme-alaba adindunak.”

Berrogeita bi. Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Hutsik geratzeko arriskuan dauden eremuak edo herriguneak.

Honako hauek dira hutsik geratzeko arriskuan dauden eremuak edo herriguneak:

HUTSIK GERATZEKO ARRISKUAN DAGOEN EREMUA EDO HERRIGUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Aberasturi	Gasteiz	Gasteiz
Abetxuko (landa eremua)	Gasteiz	Gasteiz
Abezia	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Acebedo	Gaubea	Añana
Adana	Donemiliaga	Arabako Lautada
Aginaga	Aiara	Aiara
Alangua	Agurain	Arabako Lautada
Albeiz	Asparrena	Arabako Lautada
Alcedo	Lantarón	Añana
Alda	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aletxa	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aloria	Amurrio	Aiara
Altube	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Amarita	Gasteiz	Gasteiz
Anda	Kuartango	Añana
Andagoia	Kuartango	Añana
Andoin	Asparrena	Arabako Lautada
Angostina	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Antezana de Ribera	Erriberagoitia	Añana
Antoñana	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Añes	Aiara	Aiara
Apinaiz / Apellániz	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aperregi	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Aprikano	Kuartango	Añana
Arbigano	Erriberagoitia	Añana
Areatza	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aretxabaleta	Gasteiz	Gasteiz
Arexola	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Argandoña	Gasteiz	Gasteiz
Arkauti	Gasteiz	Gasteiz

HUTSIK GERATZEKO ARRISKUAN DAGOEN EREMUA EDO HERRIGUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Arluzea	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Arreo	Erriberagoitia	Añana
Arriano	Kuartango	Añana
Arrieta	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Arriola	Asparrena	Arabako Lautada
Arrizala	Agurain	Arabako Lautada
Artatza Foronda	Gasteiz	Gasteiz
Artatza	Erriberagoitia	Añana
Artomaña	Amurrio	Aiara
Artxua	Kuartango	Añana
Askartza	Gasteiz	Gasteiz
Axpuru	Donemiliaga	Arabako Lautada
Assa	Lantziego	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Estuliz	Gaubea	Añana
Atauri	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Atiaga	Añana	Añana
Audikana	Barrundia	Arabako Lautada
Azazeta	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Azilu	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Azkoaga	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Bachicabo	Gaubea	Añana
Baranbio	Amurrio	Aiara
Baroja-Zumentu	Urizaharra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Barrio	Gaubea	Añana
Gorrebusto / Barriobusto	Oion	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Barrón	Erriberagoitia	Añana
Basabe	Gaubea	Añana
Basquiñuelas	Erriberagoitia	Añana
Bellojín	Gaubea	Añana
Beluntza	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Bergantzu	Zanbrana	Añana
Bergonda	Lantarón	Añana
Berroztegieta	Gasteiz	Gasteiz
Berrozi	Bernedo	Mendialdea
Betolatza	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Bikuña	Donemiliaga	Arabako Lautada
Billatxika	Okondo	Aiara
Bolívar	Gasteiz	Gasteiz
Bóveda	Gaubea	Añana
Bujanda	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Buruaga	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Caicedo Yuso	Lantarón	Añana
Caicedo Sopeña	Erriberagoitia	Añana
Campijo	Artziniega	Aiara
Campillar (El)	Guardia	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Caranca	Gaubea	Añana
Castillo-Sopeña	Erriberagoitia	Añana
Zekuiano	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Corro	Gaubea	Añana
Opellora / Costera	Aiara	Aiara
Dallo	Barrundia	Arabako Lautada

HUTSIK GERATZEKO ARRISKUAN DAGOEN EREMUA EDO HERRIGUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Delika	Amurrio	Aiara
Zigoitiko herrigune sakabanatua	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Domaikia	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Durruma	Donemiliaga	Arabako Lautada
Egileor	Agurain	Arabako Lautada
Elorriaga	Gasteiz	Gasteiz
Elosu	Legutio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Erbi	Aiara	Aiara
Escanzana	Berantevilla	Añana
Eskibel	Gasteiz	Gasteiz
Estarroa	Gasteiz	Gasteiz
Etxabari Urtupiña	Barrundia	Arabako Lautada
Etxabari-Kuartango	Kuartango	Añana
Etxaguen	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Etxaguen (Zigoitia)	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Etxegoien	Aiara	Aiara
Ezkerekotxa	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Faidu	Urizaharra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Fontecha	Lantarón	Añana
Foronda	Gasteiz	Gasteiz
Fresneda	Gaubea	Añana
Galarreta	Donemiliaga	Arabako Lautada
Gamiz	Gasteiz	Gasteiz
Gantzaga	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Gauna	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Gereña	Gasteiz	Gasteiz
Gereñu	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Gobeu	Gasteiz	Gasteiz
Goiain	Legutio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Gometxa	Gasteiz	Gasteiz
Gordeliz	Artziniega	Aiara
Gordoa	Asparrena	Arabako Lautada
Gibilloarrate	Kuartango	Añana
Ginea	Gaubea	Añana
Gurendes	Gaubea	Añana
Heredia	Barrundia	Arabako Lautada
Hereña	Erriberagoitia	Añana
Hermua	Barrundia	Arabako Lautada
Ixona	Burgelu	Arabako Lautada
Otoarren	Gasteiz	Gasteiz
Ibarguren	Asparrena	Arabako Lautada
Ibisate	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Igaegi	Erriberabeitia	Añana
Ilarduia	Asparrena	Arabako Lautada
Inoso	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Iñurrieta	Kuartango	Añana
Izartza	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Jauregi	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Jokano	Kuartango	Añana
Jugo	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla

HUTSIK GERATZEKO ARRISKUAN DAGOEN EREMUA EDO HERRIGUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Karkamu	Gaubea	Añana
Katadiano	Kuartango	Añana
Kintana	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Kontrasta	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Korres	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Kripan	Kripan	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Labraza	Oion	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Lacervilla	Berantevilla	Añana
Lacorzana	Armiñon	Añana
Lacorzanilla	Berantevilla	Añana
Lagran	Lagran	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Lahoz	Gaubea	Añana
Lalastra	Gaubea	Añana
Landa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Langarika	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Larrazkueta	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Larrea	Barrundia	Arabako Lautada
Larrinoa	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Lasierra	Erriberagoitia	Añana
Leciñana de la Oca	Erriberagoitia	Añana
Leziñana / Leciñana del Camino	Lantarón	Añana
Legarda	Gasteiz	Gasteiz
Lexartzu	Aiara	Aiara
Lekamaña	Amurrio	Aiara
Letona	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Llantenno	Aiara	Aiara
Lopida	Gasteiz	Gasteiz
Loza	Urizaharra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Lubiano	Gasteiz	Gasteiz
Lukiano	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Luna	Kuartango	Añana
Luxo	Aiara	Aiara
Luzuriaga	Donemiliaga	Arabako Lautada
Madaria	Aiara	Aiara
Mandojana	Gasteiz	Gasteiz
Marieta-Larrintzar	Barrundia	Arabako Lautada
Marinda	Kuartango	Añana
Markina	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Markinez	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Maroño	Aiara	Aiara
Martioda	Gasteiz	Gasteiz
Menagarai	Aiara	Aiara
Mendibil	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Mendieta	Artziniega	Aiara
Mendiguren	Gasteiz	Gasteiz
Mendixur	Barrundia	Arabako Lautada
Menoio	Aiara	Aiara
Mezkia	Donemiliaga	Arabako Lautada
Mijancas	Berantevilla	Añana
Miñao Gutxia	Gasteiz	Gasteiz

HUTSIK GERATZEKO ARRISKUAN DAGOEN EREMUA EDO HERRIGUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Miñao	Gasteiz	Gasteiz
Mioma	Gaubea	Añana
Molinilla	Lantarón	Añana
Monasterioguren	Gasteiz	Gasteiz
Montoria	Urizaharra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Morillas	Erriberagoitia	Añana
Munain	Donemiliaga	Arabako Lautada
Musitu	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Langara Ganboa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Narbaiza	Donemiliaga	Arabako Lautada
Navarrete	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Nograro	Gaubea	Añana
Nuvilla	Erriberagoitia	Añana
Ocio	Zanbrana	Añana
Oiardo	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Okariz	Donemiliaga	Arabako Lautada
Okina	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Olano	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Erroeta / Onrait	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Opakua	Agurain	Arabako Lautada
Urbisu	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Ordoñana/Erdoñana	Donemiliaga	Arabako Lautada
Ormijana	Erriberagoitia	Añana
Osma	Gaubea	Añana
Oteo	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Otogoien	Gasteiz	Gasteiz
Ozeka	Aiara	Aiara
Paul	Erriberagoitia	Añana
Pinedo	Gaubea	Añana
Pipaon	Lagran	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Zabalate	Zanbrana	Añana
Kexaa	Aiara	Aiara
Quejo	Gaubea	Añana
Quintanilla	Gaubea	Añana
Quintanilla de la Ribera	Erriberabeitia	Añana
Erretana	Gasteiz	Gasteiz
Retes de Llanteno	Aiara	Aiara
Erretes Tudela	Artziniega	Aiara
Ribaguda	Erriberabeitia	Añana
Ribera	Gaubea	Añana
Erroitegi	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Sabando	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Salcedo	Lantarón	Añana
Gesaltza Añana	Añana	Añana
Salmantón	Aiara	Aiara
Samaniego	Samaniego	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
San Miguel	Erriberagoitia	Añana
Durruma Kanpezu	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Done Bikendi Harana	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Santa Cruz del Fierro	Berantevilla	Añana

HUTSIK GERATZEKO ARRISKUAN DAGOEN EREMUA EDO HERRIGUNEA	UDALERRIAREN IZENA	KUADRILLAREN IZENA
Santa Eulalia	Kuartango	Añana
Santa Koloma	Artziniega	Aiara
Santurde	Berantevilla	Añana
Sendadiano	Kuartango	Añana
Sobrón	Lantarón	Añana
Soxoguti	Artziniega	Aiara
Soxo	Aiara	Aiara
Subijana de Alava/Subillana-Gasteiz	Gasteiz	Gasteiz
Tertanga	Amurrio	Aiara
Tobera	Berantevilla	Añana
Tobillas	Gaubea	Añana
Tortura	Kuartango	Añana
Turiso	Lantarón	Añana
Txintxetru	Donemiliaga	Arabako Lautada
Ugalde	Okondo	Aiara
Uribarri-Harana	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Uribarri Arratzua	Gasteiz	Gasteiz
Uribarri-Dibiña	Gasteiz	Gasteiz
Untzilla	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Urabain	Asparrena	Arabako Lautada
Urarte	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Urbina de Basabe	Kuartango	Añana
Urbina Eza	Kuartango	Añana
Uribarri-Kuartango	Kuartango	Añana
Urturi	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Uzkiano	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Valluerca	Gaubea	Añana
Villabezana	Erriberagoitia	Añana
Villafría	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Villaluenga	Erriberagoitia	Añana
Villamademe	Gaubea	Añana
Villamanca	Kuartango	Añana
Villamardones	Gaubea	Añana
Villambrosa	Erriberagoitia	Añana
Uribarri Gaubea	Gaubea	Añana
Villaverde	Lagran	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Viloria	Erriberagoitia	Añana
Binasperi	Lantziego	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Birgara Goien	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Birgara Barren	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Zaitegi	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zarate	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zerio	Gasteiz	Gasteiz
Zestafe	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Ziorraga	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zirao	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zuhatza	Aiara	Aiara
Zuhatzu Donemiliaga	Donemiliaga	Arabako Lautada
Zubillaga	Lantarón	Añana

"

### 3. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Lehenengoa. 37/2013 Foru Arauan (abenduaren 13koa, Sozietateen gaineko Zergarena) honako aldaketa hauek egiten dira (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 14. artikulua 2. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Ez dira balore gisa zenbatuko eta, beraz, jarduera ekonomikoei lotutzat hartuko dira honako hauek:

- Legez eta erregelamenduz ezarritako betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.
- Jarduera ekonomikoak egitearen ondorioz finkatutako kontratu harremanetatik sorturiko kreditu eskubideak jasotzen dituzten aktiboak.
- Balore sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.
- Gutxienez boto eskubideen ehuneko 5 ematen dutenak, edo ehuneko 3, partaidetutako sozietatearen akzioek antolaturiko bigarren mailako merkatuan kotizatzen badute, partaidetza zuzentzeko eta kudeatzeko helburuarekin edukitzen badira eta, ondorio horietarako, baliabide materialen eta pertsonalen antolamendu egokia badago eta partaidetutako entitateak ez badu betetzen aurreko 1. apartatuaren a) letran ezarritako betebeharra”.

Bi. 14. artikulua 2. apartatuaren b) letraren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“b) Ez dira konputatuko baloretzat ez jarduera ekonomikoei atxiki gabeko elementutzat (eta, beraz, jarduera ekonomiko bati atxikitzat joko dira) eskuraketa prezioa entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoak eginez lortu badira, muga honekin: urte berean nahiz aurreko azken hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa (kontabilitateko emaitza positiboak eta negatiboak beren artean konputatu eta integratuta).”

Hiru. 14. artikulua 2. apartatuaren c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“c) Orobat, ez dira jarduera ekonomiko bati atxikitzat hartuko laga diren edo haien gaineko eskubide errealak eratu diren ondasun higiezinak (eskubideon artean hauek egon daitezke: errentamendua, azpierrentamendua edo erabilera nahiz luperketarako eskubide edo ahalmenen eraketa edo lagapena), edozein izanda ere haien izena edo izaera, ez eta aktibo korrontetzat jotzen direnak ere, honako inguruabar hauetako bat gertatu ezean:

– Ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealak lagatzeko edo eratzeko eragiketarako foru arau honen 42. artikuluan aipatzen diren lotutako pertsonen edo entitateen alde egitea edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatzen denaren arabera talde bateko kideak diren entitateen artean, egoitza non dagoen eta urteko kontu bateratuak eman beharra gorabehera, eta, gainera, ondasun higiezinak pertsona edo entitate horiek egiten duten jarduera ekonomiko bati, c) letra honen hurrengo puntuan ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituen bati, atxikita egotea (ondasun higiezinak errentatzea, salerostea, eraikitzea edo sustatzea ez beste bati).

– Ondasun higiezinak atxikita egotea ondasun higiezinak errentatzeari, salerosteari, eraikitzeari edo sustatzeari, eta enpresak jarduera horretarako ez beste ezertarako gutxienez besteren konturako bost langile kontratatuta edukitzea batez beste jardunaldi osoarekin. Horretarako, ez dira konputatuko foru arau honetako 42. artikuluan ezartzen denaren arabera zergadunarekin lotutzat jotzen diren langileak.

Batez besteko plantilla zenbatzean, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten langileak hartu behar dira kontuan, hain zuzen ere foru arau honen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zergadunari lotutako ondare sozietate ez bestelako entitateetan enplegatuta daudenak.

c) letra honetan eta artikuluko honen 1. apartatuaren c) letraren bigarren lerroaldean xedatutakoa gorabehera, ez dira jarduera ekonomikoek ez lotutako gai gisa hartuko aktibo korrante izaera duten ondasun higiezinak, baldin eta honako entitate hauetako batenak badira:

a') Betekizun hauek betetzen dituzten entitateak:

1. Entitateak jarduera higiezin sustapena edo eraikuntza izatea eta jarduera ekonomiko hori denboran zehar etengabe garatzeko ezinbesteko giza baliabideak eta materialak dituela egiaztatzea.

2. Beraren aktiboen ehuneko 85 edo gehiago ondasun higiezinak izatea eta aktibo horiek aktibo, higiezinaren sustapen edo eraikuntzarako jarduerari loturik egonik, korranteak izatea.

3. Entitatearen sarreraren ehuneko 85 edo gehiago berak sustatutako edo eraikitako ondasun higiezinaren eskualdaketen ondoriozkoak izatea. Hiru zenbaki honetan adierazitako diru sarrerak zenbatzean, ez dira kontuan hartuko foru arau honen 42. artikuluan xedatutako eran lotutako pertsonen edo entitateen eragiketetatik datozenak.

b') Batez ere higiezinak sustatzen edo eraikitzen diharduten, jarduera hori denboran zehar etenik gabe betetzeko bitarteko materialak eta pertsonalak dituztela egiaztatzen duten eta zergaldian haren eragiketa bolumena 13. artikuluko 2. apartatuaren b) letran adierazten den zenbatekoa gainditzen ez duten entitateak.

Horrelakoetan, zergaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da. Era berean jardungo da entitate sortu berri bat denean, entitate jardueragabe batek jarduera ekonomiko bati ekiten dionean edo jarduera ekonomiko batean ari izan dena jardueragabe bihurtzen denean.

Entitatea Merkataritza Kodearen 42. artikuluko arabera sozietate talde bateko kide denean, egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharrak edozein izanda ere, lehen adierazitako magnitudeak talde horretako entitate guztiei buruzkoak izango dira. Horretarako, Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hori garatzeko arauetan ezarritako arabera bidezkoak diren ezabapenak hartuko dira kontuan."

Lau. 23. artikuluko 2. apartatuaren hirugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

"Apartatu honetan xedatzen dena ez zaie aplikatuko partaidetzaren balio narriaduraren ondoriozko galerei, gehieneko kopurua zerga honen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren edo horiek bezalako edo antzeko atzerriko zerga baten karga jasan ez duen partaidetzaren aurreko eskualdaketa baten bidez lortutako errenten zenbatekoa dela, foru arau honen 34. artikuluko 6. apartatuan arautzen diren kasuetan izan ezik, balio narriaduraren ondoriozko galera partaidetza eskuratzen denean dauden isilbidezko gainbalioen balio galera denean."

Bost. 24. artikuluko 1. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

"Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatuko zaion oinarria kalkulatzeko, zenbateko horretatik kenduko da partaidetzaren aurreko eskualdaketa baten bidez lortutako errenten zenbatekoa, hain zuzen ere zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo horiek bezalako edo antzeko atzerriko zerga baten karga jasan ez duena."

Sei. 39. artikuluko 5. apartatuaren d) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

"d) Enpresa jarduerari atxikitako ondare elementuak suteek, uholdeek, hondoratzeek, sumendien erupzioek edo bestelako arrazoi naturalek suntsitzen dituztenean laguntza publikoak jasotzea."

Zazpi. 43. artikulua 10. apartatuaren azken-laugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Halaber, apartatu honen bigarren paragrafoko kasuan, egoitza Espainiako lurraldean daukan entitateak edo Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrak, informazioa herrialdez herrialde aurkeztu behar duenak, taldeari buruzko informazioa eskatu beharko dio egoitza Espainian ez daukan entitateari. Egoitza Espainian ez daukan entitateak uko egiten badio informazio hori (dena edo zati bat) emateari, egoitza Espainiako lurraldean daukan entitateak edo Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrak eskura daukan informazioa aurkeztuko du eta inguruabar horren jakitun jarriko du Zerga Administrazioa. ”

Zortzi. 48. artikulua oraingo 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11. eta 12. apartatuen zenbakiak aldatzen dira (oraindik aurrera 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12. eta 13. apartatuak izango dira), eta 3. apartatu berria gehitzen da:

“3. Artikulu honen aurreko apartatuaren a), b) eta d) letretan ezarritako errentak, egoiliar ez den entitateak lortutakoak, ez dira sartuko zerga oinarrian kasu honetan: entitateak zuzenean edo zeharka ehuneko 5etik gorako partaidetza daukan entitate batetik badatoz (edo ehuneko 3tik gorakoa, partaidetutako sozietatearen akzioek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badute), honako baldintza hauek betez gero:

a) Egoiliarra ez den entitateak edo establezimendu iraunkorrak partaidetzak zuzentzea eta kudeatzea bitarteko materialak eta giza baliabideak antolatuz, egoitza daukan estatuan ezarrita egotea, eta beraren egitura ez izatea artifiziala ondoko 12. apartatuan ezartzen denaren aranera.

b) Errentak sortzen dituzten entitateen sarreraren ehuneko 85 gutxienez jarduera ekonomikoetan lortzea.

Horretarako, enpresa jardueretan lortuzat joko dira artikulu honetako aurreko idatz zatiko b) eta g) letretan aipatutako errentak, baldin eta b) letra honetan ezarritako betekizuna betetzen duten entitateetatik badatoz, hain zuzen ere egoiliar ez den entitateak zuzenean edo zeharka ehuneko 5etik gorako partaidetza daukan entitateetatik (edo ehuneko 3tik gorakoa, partaidetutako sozietatearen akzioek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badute).

Entitateak Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera sozietateen talde berekoak badira, urteko kontu bateratuak aurkezteko betebeharra eta egoitza gorabehera, partaidetzari dagozkion betekizunak eta partaidetza kudeaketa eta helburu bat izateak horren parte diren guztiak aintzat hartuta ebatziko da.”

Bederatzi. 53. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Zergadunek zerga oinarritik kendu ahal izango dute ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziaren hornidurarako euren kontabilitate emaitza positibotik hartzen duten zenbatekoaren ehuneko 65.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuz zerga oinarrian egiten den murrizketaren zenbatekoa ezin da izan zergaldiko zerga oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 45 baino gehiago.

Halaber, ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziaren saldoa ezin da izan zergadunaren zerga ondorioetarako ondare garbiaren ehuneko 50 baino gehiago (ondare garbitzat hartuta foru arau honen 47. artikulua 2. apartatua hala definitutakoa); salbuespena: kontabilitateko galeren ondorioz gehikuntza gertatzen denean.”

Hamar. 53. artikulua 2. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Foru arau honen 61. artikulua 1. apartatua aipatzen diren aktibo ez-korrante berriak eskuratzea, baldin eta artikulu horretan ezarritako kenkarirako eskubidea ematen badute.

Zergadunak, horrelakoetan, ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezian sartutako diru kopuruen bikoitza inbertitu beharko du aktibo finko berriaren erosketan, zuzkidura osoa aplikatuzat jo ahal izateko, eta ezingo du aplikatu foru arau honetako 61. artikuluan ezarritako kenkaria (letra honetan ezarritako zenbatekoa gehienez).”

Hamaika. 53. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Aurreko apartatuan ezarritako epealdian zergadunak ez baditu erabat gauzatu ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezian sartutako diru kopuruak, geratzen den zenbatekoaren ehuneko 65 zerga oinarriari gehituko zaio aipatutako epealdia betetzen den zergaldian, eta zenbateko horren ehuneko 15eko zuzenketa positibo gehigarria egingo da.”

Hamabi. 66. artikulua 6. apartatua ezabatzen da.

Hamahiru. 67. artikulua 1. apartatua eta 7. apartatua aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“1. Kapitulu honetan arautzen den kenkarien batura ezin da izan kuota likidoaren ehuneko 35 baino gehiago, honako kenkari hauek izan ezik:

a) Aurreko 62-64 artikuluetan jasotakoak. Horien muga kuota likidoaren ehuneko 70 izango da.

b) 65. artikuluan jasotakoak. Horien muga kuota likidoaren ehuneko 50 izango da.

Muga desberdinek eragindako kenkariak aldi berean gertatzen badira, ehuneko 70eko muga ehuneko 35eko baterako kenkariaren muga aplikatu ondoren ateratzen den kuota likidoaren soberakinari aplikatuko zaio, eta ehuneko 50eko muga ehuneko 35eko eta 70eko kenkarien mugak aplikatu ondoren ateratzen den kuota likidoaren soberakinari.”

“7. Kuota likidoko kenkariak aplikatzerakoan honako hurrenkera hau jarraitu behar da:

a) Lehenik eta behin, artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ehuneko 35eko muga aplikatu behar zaien aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira.

b) Bigarrenik, artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako muga (ehuneko 35) aplikatu behar zaien ekitaldiko kenkariak.

c) Hirugarrenik, artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ehuneko 70ko muga aplikatu behar zaien aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira.

b) Laugarrenik, artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako muga (ehuneko 70) aplikatu behar zaien ekitaldiko kenkariak.

e) Bosgarrenik, artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ehuneko 50eko muga aplikatu behar zaien aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira.

f) Azkenik, artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ehuneko 50eko muga aplikatu behar zaien aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira.”

Hamalau. 107. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hala ere, entitate eskuratzailleak entitate eskualdatzailearen kapitalean gutxienez ehuneko 5eko partaidetza badauka (edo ehuneko 3koa, sozietate horrek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu), partaidetzak zerga ordainketarako daukan eskuraketa balioaren ondare garbiaren arteko diferentziaren zenbatekoa eskuratutako ondasunei eta eskubideei egotziko zaie; horretarako Merkataritza Kodeko 46. artikuluan eta hura garatu duten gainerako arauetan ezarritako integrazio metodo orokorra aplikatuko da. Gainera, aurrean aipatutako balorazioaren arabera egoten ez den diferentziaren zatia kengarria izango da zerga ordainketan, foru arau honetako 25. artikuluko 1. idatz zatian ezarri den bezala. Salbuespena: batera zein bestera, zerga honen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren edo horiek bezalako edo antzeko atzerriko zerga baten karga jasan ez duen partaidetzaren aurreko eskualdaketa baten bidez lortutako errenten besteko diferentzia.”

Hamabost. 122 bis artikulua 1. apartatuaren azken aurreko eta azken paragrafoak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“Gainera, foru arau honetako 12. artikulua 2. apartatua aipatzen den salbuespen partziala duten entitateek zerga oinarrian sartu behar diren errentak ematen dituzten eragiketetan baino ez dute bete behar hemen eskatzen dena. Hala ere, betebeharrak honi dagokionez, honelako entitateetako kideek estatutuen arabera ordaintzen dituzten kuotak ez dira kargatuko.

Betebeharrak honen salbuespenak ezarri ahal izango dira erregelamendu bidez.”

Hamasei. Hamalagarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hamalagarrena. Erreserba berezietan aplikatu beharreko araubide iragankorra.

Bat. Mozkinak berdintzeko erreserba berezia.

Zergadunek beren zerga oinarria murriztu badute 2017tik 2021era bitarteko zergaldietan, biak barne, foru arau honen 52. artikulua aipatzen diren mozkinak berdintzeko erreserba bereziaren zuzkidurara bideratutako zenbatekoei dagokienez, 52. artikulua horren 2. apartatua xedatzen dena aplikatuko dute (gaur egun indarrean dagoen testua) 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, aipatutako egunetik aurrera hasten den lehenengo zergaldiko lehenengo egunean konpentsatzeko dauden zenbateko horiei dagokienez.

Hala ere, eta konpentsatzeko dauden zenbatekoei dagokienez soilik, zergadunak foru arau honen 52. artikulua 2. apartatua xedatzen dena aplikatu ahal izango du (indarrean dagoen testua) 2021eko zergaldian; kasu horretan, zergaldiko azken egunaren hurrengo eta hurrenez hurren bost urteetako epealdia igaro bada, eta zergaldi horren kontabilitate emaitza positiboaren kargura erreserba berezia zuzkitu bada zergadunak zerga oinarri negatiborik aurkeztu gabe edo 2017tik 2021era bitarteko zergaldietako batean kendutako zenbatekoak, biak barne, erabat aplikatzeko adinako zenbatekorik izan gabe, gainerako zenbatekoak aipatutako epealdia betetzen den zergaldiko zerga oinarria handituko du, eta zenbateko horren ehuneko 10eko zuzenketa positibo gehigarria egingo da.

Bi. Ekintzailera sustatzeko eta ekoizpen jardura indartzeko erreserba berezia.

Zerga oinarria murriztu duten zergadunak, 2020tik 2022ra bitarteko zergaldietan, biak barne, foru arau honen 53. artikulua aipatzen den ekintzailera sustatzeko eta ekoizpen jardura indartzeko erreserba bereziaren zuzkidurara bideratutako zenbatekoei dagokienez, eta zenbateko horiek horretarako aurreikusitako helburuetara bideratu ez badituzte, aipatutako zenbatekoei dagokienez soilik aplikatuko dute aipatutako 53. artikulua 3. apartatua xedatzen dena (2022ko zergaldirako indarrean dagoen testua).”

Bigarrena. 37/2013 Foru Arauan (abenduaren 13koa, Sozietateen gaineko Zergarena) honako aldaketa hauek egiten dira (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 64 bis artikulua 2. apartatuaren c) letraren a') eta b') letrak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“a) Batetik, sozietate anonimo, erantzukizun mugatuko sozietate, kooperatiba, lan sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko lan sozietate anonimoaren forma izan behar dute, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Lan Sozietateen eta parte hartuen urriaren 14ko 44/2015 Legean ezarritako moduan. Baldintza hau proiektua egiten den aldiaren bete behar da.”

“b') Entitatea mikroenpresa, enpresa txikia edo enpresa ertaina izan behar da, foru arau honen 13. artikulua xedatzen denaren arabera, kontratua sinatzen denean.”

Bi. 64 bis artikulua 2. apartatuaren d) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“d) Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duten zergadunek eta proiektuaren finantzaketan parte hartzen dutenek finantzaketa kontratua sinatu behar dute, eta bertan honako datu hauek zehaztu behar dituzte:

a') Nortzuk diren proiektuan parte hartzen duten zergadunak.

b') Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren deskripzioa.

c') Proiektuaren aurrekontua.

d') Proiektua nola finantzatuko den, eta bereizita adierazi behar da zer zenbateko jarriko dituen proiektua egiten duen zergadunak, zer zenbateko jarriko dituen proiektuaren finantzaketan parte hartuko duen zergadunak eta zer zenbateko dagozkien finantza entitateen kredituei, dirulaguntzei eta bestelako babes neurriei.

e') Erregelamendu bidez zehazten diren gainerako guztiak.

d) letra honetan aipatzen den finantzaketa kontratua proiektua exekutatzeko hasi aurretik formalizatu behar da, baina proiektua exekutatzeko lehenengo bederatzi hiletan ere formalizatu ahal izango da, baldin eta artikulua honen 7. apartatua aipatzen den txostena proiektua exekutatzeko hasi aurretik edo exekuzioaren lehen hiru hiletan eskatu bada eta artean amaitu gabe bada proiektuaren exekuzioa hasten den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko epealdia. Kasu hauetan, finantzaketa kontratuari 7. apartatua aipatzen den txostenaren eskaeraren kopia erantsi behar zaio, eta aurreko 1. apartatua xedatzen denaren aplikazioa etenda geratuko da txostena jaso arte.”

Hiru. 64 bis artikulua 7. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“7. Artikulu honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da aurreko 2. apartatua aipatzen den finantzaketa kontratua sinatu aurretik lortzea foru arau honetako 64. artikulua 3. apartatua aipatzen den txosten arrazoitua, edo Administrazioaren ustez xede bera betetzen duen besteren bat. Txosten hori, kontratuarekin batera, komunikazio batean aurkeztu behar zaio Zerga Administrazioari, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak eta haren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak sinatuta. Finantzaketa kontratuaren eta txostenaren komunikazioa proiektua egiten hasten den zergaldia amaitu baino lehen aurkeztu behar da. Erregelamenduz ezarriko da nola aurkeztu behar den.

Hala ere, aurreko 2. apartatuaren d) letrako azken paragrafoan aipatzen den kasuan komunikazioarekin batera txostenaren eskaera ere aurkeztu behar da eta gero, zergadunak txostena jaso ondoren, komunikazio osagarria aurkeztu behar da hura jaso ondoko hiru hiletan.”

Lau. 64 bis artikulua 8. apartatua gehitzen zaio; hona testua:

“8. Gorabehera tekniko edo ekonomikoren bat gertatuz gero, zergadunek baimena eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari teknologien arloko ikerkuntza eta garapeneko edo berrikuntzako proiektuak finantzatzeko kontratuak aldatu ahal izateko, ordainketen eta gastuen eta inbertsioen egutegia gorabeheraren arabera doitzeko.

Halaber, finantzatzailearen kaudimenaren inguruko inguruabar bereziren bat gertatzen bada, Zerga Administrazioari baimena eskatu ahal izango zaio teknologien arloko ikerkuntza eta garapeneko edo berrikuntzako proiektu bat finantzatzeko formalizatutako kontratuetan ari den zergadunaren lekuan subrogatzeko.

Baimen eskaerak Sozietatearen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 45. artikuluan arautzen den prozeduraren arabera izapidetuko dira, eta aurreko paragrafoetan aipatzen den gorabehera gertatzen denetik hiru hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar dira.”

Bost. Hamabosgarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuaren 1. eta 4. zenbakiak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“1. Fikzio, animazio edo dokumentalen ikus-entzunezko serie eta film luzeen ekoizpen espainiarretan inbertsioak egitea, ekoizpen industrial seriatuaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen badute, lehenengo apartatu honetan aurreikusitako betekizunak betez, orduan ekoizleak eskubidea izango du kuota likidoan ehuneko 35eko kenkaria aplikatzeko, oro har, eta ehuneko 45ekoa euskaraz filmatutako lanen kasuan.”

“4. Kenkari honen zenbatekoa ezin da izan 10 milioi eurotik gorakoa egindako ekoizpen bakoitzeko.”

Sei. Hamabosgarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatuaren 1., 3., 4. eta 5. zenbakiak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“1. Kultura eta Kirol Ministerioko ikus-entzunezko eta zinema arloko enpresen administrazio erregistroan jasotako ekoizleak, ikus-entzunezko obra edo film luzeen atzerriko ekoizpena egiteaz arduratzen badira, ekoizpen industrial seriatuaren aurretik euskarri fisikoa egitea ahalbidetzen badute, orduan eskubidea izango dute Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egindako gastuen ehuneko 35eko kenkaria aplikatzeko kuota likidoan.”

“3. Kenkariaren oinarrian Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean ekoizpenaren inguruan egiten diren gastu hauek sartuko dira:

1. Sortzaileen gastuak, baldin eta zerga egoitza Espainian edo Europar Batasuneko estatu batean badago; muga: 100.000,00 euro pertsonako.

2. Industria teknikoek eta beste hornitzaile batzuek eragiten dituzten gastuak.”

“4. Xedapen gehigarri honen 7. apartatuan xedatzen dena gorabehera, kenkariaren oinarritik kenkari eskubidea sortzen duten gastuak finantzatzeko jasotzen diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan egindako gastuak ezin dira izan ekoizpenaren guztirako aurrekontuaren ehuneko 80 baino gehiago.”

“5. Kenkari honen zenbatekoa ezin da izan 10 milioi eurotik gorakoa egindako ekoizpen bakoitzeko.”

#### **4. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga**

9/2013 Foru Arauan (martxoaren 11koa, ondarearen gaineko zergarena) honako aldaketa hauek egiten dira (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 5. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Bat. Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak, babes ertaina edo berezia dutenak Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera.”

Bi. 5. artikulua laugarren apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Lau. Artelanak eta antzinako gauzak, baldin eta beren balioa Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak 26. artikulua 4. apartatuan ezartzen duenaren ondorioetarako ezartzen diren kopuruak baino txikiagoa bada.”

Hiru. 5. artikulua hamabigarren apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Zenbaki honetan arautzen den salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik edukiko foru arau honen 34. artikuluan ondasun eta eskubide beretarako ezartzen den kenkaria aplikatzeko.”

Lau. 5. artikulua hamabigarren apartatuaren hirugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Zenbaki honetan ezarritakoa lekualdaketa onduz araubide berezi hau hautatzen duen eta egoitza fiskala Araban ezartzen duen zergadunaren ezkontideari edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu izateko bikotekideari ere aplikatuko zaio, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arauaren 98. artikuluan aipatzen den familia unitateko kideei ere, baldin eta Espainiako egoiliarrek ez badira lurralde espainiarrera lekualdatu aurreko bost urteetan.”

Bost. 6. artikulua bigarren apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Entitatearen jardura nagusia ez izatea ondare higikorra edo higiezina kudeatzea. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera entitate batek ez baditu betetzen bere aktiboaren erdia baino gehiago balorez osatuta dagoela edo jardura ekonomikoei lotuta ez dagoela jotzeko ezarritako baldintzak, pentsatuko da ez duela kudeatzen ondare higikorra ez higiezina eta, beraz, jardura ekonomikoa egiten duela ulertuko da.

Hori dela-eta, entitateak foru arau honen 5. artikulua bosgarren apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten artelanak eta antzinako gauzak badauzka, ondasun horiek jardura ekonomikoekin lotuzat joko dira.

Entitateak aldi berean beste entitate batzuetako partaidetzak badauzka, ondare higikorra ez duela kudeatzen pentsatzeko, baldintza hauek bete behar dira: entitate horietako bakoitzean gutxienez boto eskubideen ehuneko bost eduki behar du zuzenean, partaidetza horiek baliabide pertsonal eta materialen antolaketa egokiaren bidez zuzendu eta kudeatu behar ditu, eta partaidetza daukan entitateen jardura nagusia ezin da izan ondare higikorra ez higiezina kudeatzea, letra honen lehen paragrafoan zehazten den bezala.”

Sei. 6. artikulua bigarren apartatuaren c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Zergadunak entitatearen kapitalean daukan partaidetza gutxienez ehuneko bostekoa izatea, berarena soilik zenbatuta, edo ehuneko 20koa, berarenarekin batera ezkontidearena, izateko bikotekidearena (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu izateko bikotea), aurrekoena, ondorengoena edo bigarren graduako albo ahaideena ere zenbatuta (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izateko bikotearen eraketa -Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera- edo adopzioa).

Letra honetan ezarritako baldintza betetzat joko da, baldin eta, familia taldeko kideen arteko enpresa kudeaketako ondorengotza prozesuen ondorioz, aurreko paragrafoan aipatutako pertsonaren baten edo batzuen partaidetza ehuneko murriztu bada, edo partaidetza hori geroagoko mailako alboetara eskualdatu bada, betiere paragrafo honetan aipatutako pertsonen partaidetza guztiak edukitzera bideratutako enpresa talde baten bitartez geratzen badira, azken entitate horrek paragrafo honetako a) eta b) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituen enpresa taldeko entitate nagusiaren kapitalean ehuneko 25etik gorako partaidetza bada eta paragrafo honetan aipatutako pertsonetako batek hurrengo d) letretan ezartzen den baldintza betetzen badu. Hala denean, salbuespena aplikatuko zaie paragrafo honetan aipatzen diren pertsona guztiei.”

Zazpi. 6. artikulua seigarren apartatuaren b) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“b) Partaidetzen balioan ekonomia ustiapenei lotuta ez dauden ondasun higiezinei dagokien zatia.

Aurreko bigarren apartatuan aipatzen diren partaidetzen balioan ondasun higiezinei dagokien zenbatekoa, foru arau honen 18. artikulua lehen apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, baldin eta ondasun higiezinak hirugarrenei laga bazaizkie edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira (honen barruan sartzen dira ondasun horiek errentan

edo azpierrentan ematea eta ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzea, izena eta izaera gorabehera; honako inguruabarretako bat gertatzen denean izan ezik:

– Ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealak lagatzeko edo eratzeko eragiketarako Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikuluan aipatzen diren lotutako pertsonen edo entitateen alde egitea edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatzen denaren arabera talde bateko kideak diren entitateen artean, egoitza non dagoen eta urteko kontu bateratuak eman beharra gorabehera, eta, gainera, ondasun higiezinak pertsona edo entitate horiek egiten duten jarduera ekonomiko bati atxikita egotea (ondasun higiezinak errentatzea, salerostea, eraikitzea edo sustatzea ez beste bati), eta ez edukitzea batez beste plantillan horretarako ez beste ezertarako kontratatutako bost langile gutxienez jardunaldi osoarekin.

– Entitateak urteko plantillan jarduera horretarako ez beste ezertarako kontratatutako bost langile edukitzea batez beste gutxienez jardunaldi osoarekin. Horretarako, ez dira zenbatuko artikuluko honen bigarren apartatuaren c) letran aipatzen den zergadunarekin lotura duten langileak, ez eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 42. artikuluan ezartzen duenaren arabera zergadunarekin lotutzat jotzen diren langileak ere.

Apartatu honen a) eta b) letretan aipatzen den plantillako batez besteko langile kopurua kalkulatzeko honako hauek eduki behar dira kontuan: langileek aurreko paragrafoan eta aurreko a) letran ezarritako betekizunak bete behar dituzte, zergadunak kapitalean gutxienez ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa daukan entitate batean egon behar dira enplegatuta, eta partaidetzak artikuluko honetan ezarritako betekizunak bete behar ditu. Ildo honetatik, batez besteko plantilla kalkulatzeko kontuan hartu beharreko entitateak zehazteko ez beste ezertarako, artikuluko honen bigarren apartatuaren a) eta b) letretan ezarritako betekizunak zergadunak zuzenean zein zeharka partaidetza daukan entitate guzti-guztietan bete behar dira, eta artikuluko honen bigarren apartatuaren d) letran ezarritako betekizuna zergadunak zuzeneko partaidetza daukan entitateetan soilik bete behar da.

Letra honetan ezarritako salbuespena ez da aplikatuko zergadunak abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VIII. kapituluaren ezarritako araubide berezia aplikatzen duen entitatearen baten partaidetza badauka, ez eta aipatutako foru arauaren 115. artikuluko 1. apartatua aipatzen diren kasuetan ere.”

Zortzi. 6. artikuluari zortzigarren apartatua gehitzen zaio; hona:

“Zortzi. Zerga honetatik salbuetsita egongo dira, halaber, artelanak eta zaharrikak dituzten entitateen kapital edo ondareko partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soilik eta biziarteko gozamen eskubidea, baldin eta entitate horiek, gutxienez hiru urtez, gordailu iraunkor moduan lagatzen badizkiete museoei edo irabazteko asmorik gabeko kultur entitateei jendaurrean era-kusteko, gordailupean dauden bitartean. Apartatu honetan arautzen den salbuespena ondasun horien balioaren eta entitate partaidetuaren aktibo osoaren arteko proportzioari dagokion balio zatiari aplikatuko zaio.”

Bederatzi. 11. artikuluko laugarren apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Lau. Zerga ordaindu behar erreala badago, Espainiako lurraldean dauden ondasunen edo bertan baliatu ahal diren edo bete behar diren eskubideen gaineko kargak eta zamak soilik kendu ahal izango dira, eta horiekin batera zergapeko ondasunetan eta eskubideetan inbertitutako kapitalen ondoriozko zorrak ere bai.”

Hamar. 12. artikuluko bigarren apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Bi. Eraikitzen ari diren ondasun higiezinaren balioa kalkulatzeko honako kopuru hauek hartu behar dira kontuan: zerga sortu arte eraikuntzan benetan inbertitutako kopuruak, eta orubearen ondare balioa, artikuluko honetan ezarritakoaren arabera zehaztua. Jabetza horizontalen kasuan, orubearen balioaren zati proportzionala tituluan finkatutako ehunekoaren arabera zehaztuko da.”

Hamaika. 17. artikulua bigarren apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Bi. Merkatu antolatuetan kotizatzen duen entitate juridiko batek eman ondoren kotizazioan onartu gabe dagoen akzio edo partaidetza berria harpidetzen denean, akzio edo partaidetzaren balioa harpidetzaldian aurreko tituluak eduki duen azken negoziazio balioa izango da.”

Hamabi. 20. artikulua lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Bitxiak, luxuzko larruak, autoak, 125 zentimetro kubikoko edo gehiagoko zilindrada duten bi edo hiru gurpileko ibilgailuak, laketontziak edo itsas kiroletarako ontziak, belaontziak, hegazkinak, hegazkin txikiak, belaontziak eta gainerako aireontziak zergaren sortzapen egunean duten merkatuko balioaren arabera konputatuko dira.”

Hamahiru. 27. artikulua bigarren apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Salbuetsitako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko hartutako zorrak eta obligazioak. Salbuespena partziala bada, zorren eta obligazioen zati proportzionala kendu ahal izango da, bidezkoa izanez gero.”

Hamalau. 33. artikulua hirugarren apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Gainera, zergadunaren ondorean sartuko dira zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, ondoko kasuan izan ezik: dohaintza emaileari ondorearen gaineko zergaren ordainketan ondasunen balioaren besteko zenbatekoa kargatu zaiola frogatuz gero. Erregela hau ez zaie aplikatuko Irabazteko asmorik gabeko elkarteen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 19. artikuluan aipatzen diren entitateen esku kostu gabe jarritako ondasunei.”

Hamabost. 35. artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Aurreko paragrafoan ezarritakoa izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, bikote lagunek ezarritako ondare araubide ekonomikoari Kode Zibilaren manu hori aplikatzen bazaio.”

Hamasei. Bosgarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuaren laugarren apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Halaber, testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen herentziaren ondorean konputatuko dira kausatzaileak kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, betiere zerga sortu aurreko bost urteetan, baldin eta egiaztatzen ez bada dohaintza hartzaileak horien balio parekidea duen zenbateko baten truke tributatzen duela ondorearen gaineko zergan. Erregela hau ez zaie aplikatuko Irabazteko asmorik gabeko elkarteen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 19. artikuluan aipatzen diren entitateen esku kostu gabe jarritako ondasunei.”

## **5. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga**

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2015 Foru Arauaren 22. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da (aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

### **“22. artikulua. Likidazio oinarria**

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe, “mortis causa” eskuraketetan edo beste edozein oinordetza tituluren bidezko eskuraketetan, likidazio oinarria kalkulatzeko, ahaidetasun graduen araberrako murrizketak aplikatu behar zaizkio zerga oinarriari; hona murrizketak:

0 taldea: ezkontideak, izatezko bikotekideak (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotea), lerro zuzeneko odol ahaide diren aurrekoek edo ondorengoek eta adoptatuek edo adoptatzaileek egindako eskuraketak; 400.000,00 euro.

I. taldea: bigarren eta hirugarren mailako alboko odol ahaideek eta ezkontza bidezko ondorengo eta aurreko ahaideek, are Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoek ere, egindako eskuraketak; 38.156,00 euro.

II. taldea: laugarren mailako alboko ahaideen, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako alboko ahaideen eta urrunagoko ahaideen eta arrotzen eskuraketak; ez dago txikipenik.

Legez ezinduak direnek egindako eskuraketetan (ezintasun gradua, indarreko legerian ezartzen den baremoaren arabera, ehuneko 33 eta ehuneko 65 artekoa dela) 56.109,00 euroko murrizketa aplikatuko da.

Murrizketa 176.045,00 eurokoa izango da, aurrean aipatutako arautegiaren arabera, ezintasuna ehuneko 65ekoa edo hortik gorakoa dutenentzat; edo mendetasun arina (I. gradua) edo handiagoa dutenentzat, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan ezarritakoaren eta apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuak -abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezarritako mendetasuna baloratzeko baremoa onartzen duenak- xedatutakoaren arabera. Inolaz ere ezin izango da murrizketa ezarri aldi berean bi kontzeptuengatik.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gainera, pertsona horiei arau hauek aplikatuko zaizkie.

a) 1. apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen den murrizketaren ordeztu, ahaidetasun gradua gorabehera, 38.156,00 euroko murrizketa aplikatuko da, eta kopuru horri 4.770,00 euro gehituko zaizkio kausadunari hogeita bat urte betetzeko falta zaion urte bakoitzeko. Guztira, murrizketaren zenbatekoa ezin da izan 119.930,00 euro baino gehiago.

b) Foru arau honen 24. artikuluan aipatzen den I. tarifa aplikatuko da.

Aurreko hiru paragrafoetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko 0 taldearen barruan egonik legez ezinduak edo mendekoak diren pertsonen, haien ezintasun edo mendetasun maila edozein dela ere.

2. Bizitza aseguru dela-eta jasotzen diren diru kopuruen eskuraketetan, likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga oinarriari honako murrizketa hau aplikatu behar zaio (kasuan kasukoa aseguruaren kontratatzailearen eta onuradunaren ahaidetasunaren arabera):

a) 0 taldekoa izanez gero, 400.000,00 euro.

b) I. taldekoa izanez gero, ehuneko 50ekoa, 200.000,00 euro gehienez.

c) II. taldekoa izanez gero, ehuneko 10ekoa, 40.000,00 euro gehienez.

Hala ere, aseguru kolektiboetan edo enpresek beren enplegatuentzat kontraturiko aseguruetan, aurreko murrizketak aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera aplikatuko dira.

3. Terrorismo ekintzen ondoriozko bizitza aseguruetan eta nazioarteko misio humanitario eta bake misio publikoetan egiten diren zerbitzuetan ehuneko 100eko murriztapena aplikatuko da. Murrizketa hau onuradun izan daitezkeen guztiei aplikatuko zaie.

4. Dohaintzaren edo horrekin pareka daitezkeen tituluen bidezko eskuraketetan, likidazio oinarria, betiere, zerga oinarria bera izango da.

5. Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak (bikote horiek Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak ezarritakoaren arabera eraturik badaude), aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuek zein adopzio hartzaileek edo laugarren gradura arteko albo ahaideek, ezkontza bidezko ahaideek zein izatezko bikotea izatearen edo adopzioaren ondoriozko ahaideek "mortis causa" eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, lanbide negozio bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauak 6. artikuluen batetik seira apartatuetan arautzen duen salbuespena aplikatu ahal zaion entitate partaidetzaren bat edo haien gaineko gozamen eskubideren bat, bada, orduan, halako eskuraketei zerga oinarriaren

ehuneko 95eko murrizketa aplikatuko zaie, betiere eskuraketak bere hartan irauten badu hurrengo bost urteetan (salbu eta eskuraztailea epe horretan hiltzen bada edo enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada).

Kausatzailea bizi bitartean eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen ondorioz izandako eskurapenetan, aurreko paragrafoak aipatutako bost urteko epea zenbatuko da esku-aldaketa egiten den unetik aurrera.

Halaber, murrizketa hori aplikatzekoa izango zaio hala pertsona bakarreko enpresa baten, lanbide negozio baten edo idatz zati honen lehenengo paragrafoan aipatutako entitateetako partaidetzaren baten gaineko gozamen eskubideen eskuraketari, nola gozamen hori iraungitzearen ondorioz sortutako eskubide ekonomikoen eskuraketari, baldin eta heriotzaren ondorioz eskuraztaileak jabari osoa finkatzen badu edo gozamina iraungitakoan zor diren eskubideak kasuan kasuko enpresa, negozio edo entitatearen partaidetza gisa jasotzen baditu.

Iraupenaren baldintza betetzen ez bada, egindako txikipearen ondorioz ordaindu gabe geratu den zerga zatia eta dagozkion berandutze interesak ordaindu beharko dira.

6. Etxebizitzaren jabari osoa, gozamina, jabetza soila, azalerako eskubidea edo erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubidea doan eskuratzen bada, "inter vivos" edo "mortis causa"; eta eskuraztailea etxebizitza horretan eskualdatzailearekin bizi izan bazen eskualdaketa gertatu aurreko bi urteetan, eskuraketa horrek ehuneko 95eko murrizketa izango du etxebizitzari dagokion zerga oinarrian, 212.242,00 euroko mugarekin.

Bizikidetasunari buruzko baldintza Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliz frogatu ahal izango da.

7. Banako enpresa bat, negozio profesional bat edo entitate bateko partaidetza "inter vivos" eskuratzen badu ezkontideak edo izatezko bikotekideak (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako bikotea), aurreko edo ondorengo ahaide batek edo adoptatu edo adoptatzaile batek eta eskuraketa salbuetsita badago Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauaren 6. artikulua batetik seira apartatueta arautzen denaren arabera, zergaren oinarriari ehuneko 95eko murrizketa aplikatu ahal izango zaio, honako baldintza hauek betez gero.

a) Dohaintza emaileak hirurogei urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.

b) Dohaintza emaileak zuzendaritza lanak egin izan baditu, eskualdaketa gertatzen denetik bertan behera utzi behar ditu eta ezin ditu jaso lanoi dagozkien ordainsariak.

Horretarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide hutsa izatea ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.

c) Dohaintza hartzaileari dagokionez, eskuratutakoa mantendu beharko du eta Ondarearen gaineko Zergaren foru arauaren 6. artikulua araututako salbuespena egiteko eskubidea izan beharko du dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondoko bost urteetan zehar, aldi horren barruan hiltzen denean edo enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denean izan ezik. Halaber, dohaintza hartzaileak ezin izango du egin zuzenean edo zeharka eskuraketa balioa nabarmen murriztu dezakeen xedapen egintzarik ez sozietate eragiketarik.

Apartatu honetan aipatzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, aplikatutako murrizketaren ondorioz ordaindu gabe geratu den zerga zatia eta beraren berandutza interesak ordaindu beharko dira."

## **6. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga**

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 69. artikulua lehen apartatuaren A) letraren 3. paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Irabazteko asmorik gabeko entitateak, irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatzen direnak, foru arau honen 16. artikuluan ezartzen den zerga araubide bereziari heltzen diotenak, eta aipatutako foru arauaren 4. eta 5. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten irabazteko asmorik gabeko entitateak, mezenasgoari buruzko beste araudi bat aplikatzen zaienak.”

Bi. 69. artikulua lehen apartatuaren B) letrari 53. paragrafoa gehitzen zaio; hona:

“53. Edozein tituluren bidez ondasunak edo eskubideak eskualdatzea, kalteordainak ordaintzeko, judizialki aitortutako zenbatekoan, seme-alaben eta adingabeen mesedetan edo tutoretza, zaintza eta babespea duten pertsona ezgaituen mesedetan edo haien gaitasun juridikoa behar bezala gauzatzeko laguntza neurriekin, baldin eta eskualdaketa horiek emakumearen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako emakumeek gauzatzeko badituzte, legeak edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnek zehazten duten moduan.”

### **7. artikulua. Kooperatiben zerga araubidea**

16/1997 Foru Arauan (ekainaren 9koa, kooperatiben zerga araubideari buruzkoa) honako aldaketa hauek egiten dira (aldaketek 2023ko urtarrilaz geroz hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 6. artikulua 3. baldintza aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Besteren konturako lan kontratua duten langileek urtean egiten dituzten orduen kopuruak ez gainditzea Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 103. artikulua 4. apartatua edo, behar denean, Kooperatiben Lege aplikagarrian ezarritako mugak. Hala ere, elkarlaneko kooperatiba txikia bada, besteren konturako langileak kontratatze mugak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 138. artikulua edo, behar denean, Kooperatiben Lege aplikagarrian ezarritakoak izango dira.”

Bi. 25. artikulua lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren kooperatiba babestuetako bazkideek, Sozietateen gaineko Zergaren foru arauaren 33. artikulua 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko diete jasotzen dituzten kooperatiba itzulkinei, zergapetze bikoitza kentzearen. Babes bereziko kooperatiba izateagatik, etekin horiek foru arauaren 27. artikulua 2. apartatua arautzen den kenkaria baldin badute, itzulkin horiei Sozietateen gaineko Zergaren foru arauaren 33. artikulua 2. apartatua xedatutakoa aplikatuko diete.”

### **8. artikulua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga**

Bat. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen bigarren ataleko 86. multzoan beste talde bat gehitzen da, 863. taldea (573/1991 Araugintzako Foru Dekretua, uztailaren 23koa, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta horiek aplikatzeko jarraibidea ere onartzen dituena). Talde berriak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hona testua:

“863. taldea. Kazetariak eta informazioaren eta komunikazioaren beste profesional batzuk.

Kuota: 115,00 euro.

Oharra: Talde honetan sailkatutako subjektu pasiboek ahalmena edukiko dute edozein bitarteko idatzi, ahozko, ikusizko edo grafikoren bidez informazioa edo edukiak lortzeko, tratatzeko, interpretatzeko eta zabaltzeko, bai eta erakundearen edo korporazioaren komunikazio planei buruzko aholkuak eskatzeko eta plan horiek gauzatzeko ere.”

Bi. Puntu bat gehitzen zaio Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren foru arauaren testu bateginaren 11. artikulua 1. apartatuaren d) letrari (testu bategin hori irailaren 29ko 3/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi du). Puntuak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hona testua:

“- Jarduera ekonomikoari atxikitako lokaletan ibilgailua elektrikoak birkargatzeko puntuak jartzea. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da instalazioak administrazio eskudunak emandako homologazioa edukitzea.”

### **9. artikulua. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga**

Irailaren 29ko 2/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Ondasun Higigarrien gaineko Zergaren foru arauaren testu bateginean honako aldaketa hauek egiten dira (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 4. artikulua 1. apartatuaren k) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“k) Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikulua 1. apartatuaren a) letran monumentu izaera duten ondasun higiezinak. Salbuespen horrek Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan inskribatuta dauden babes bereziko zein ertaineko ondasunei eragingo die.

Era berean, salbuetsita egongo dira Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikulua 1. apartatuaren b) letran aipatzen den monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak. Salbuespen horrek Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan inskribatuta dauden babes bereziko eta ertaineko higiezi bano ez die eragingo.

Era berean, salbuetsita egongo dira Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikulua 1. apartatuaren c) letran aipatzen den eremu arkeologiko edo paleontologiko baten barruan dauden ondasun higiezinak, hain zuzen ere babes berezi eta ertaineko kultura ondasun deklaratuak, baldin eta, esku hartze arkeologikoren bat egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak erabaki badu haietan aurkitutako hondakinak mantendu behar direla, eta ezin direla ezabatu ez lekuz aldatu.”

Bi. 15. artikulua 12. eta 13. apartatuak 13. eta 14. apartatua izango dira hemendik aurrera, eta artikulua horren 12. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“12. Zergaren kuota osoaren ehuneko 50eko hobaria, gehienez, ondasun higiezinaren ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak jarritz gero. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da instalazioak administrazio eskudunak emandako homologazioa edukitzea.”

### **10. artikulua. Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga**

g) letra gehitzen zaio Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren foru arauaren testu bateginaren 8. artikulua 1. apartatuari (testu bategin hori irailaren 29ko 5/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi du). Letra berriak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hona testua:

“g) Ehuneko 90eko hobaria, gehienez, ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak egiten diren eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da instalazioak administrazio eskudunak emandako homologazioa edukitzea.”

### **11. artikulua. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak**

Zenbait aldaketa egiten dira Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 5. artikulua 1. eta 8. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“1. Interes orokorreko xedeak edukitzea. Honako hauek dira, besteak beste, interes orokorreko jarduerak: giza eskubideen eta printzipio etikoak eta demokratikoak defendatzea, batez ere terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak defendatzea; erakundeak sendotzea; gizartegintza eta gizarte inklusioa sustatzea; helburu zibikoak, hezkuntzakoak, kulturalak, zientifikoak, kirolekoak, osasunekoak eta lan arlokoak; garapenerako lankidetzak eta hezkuntza; ingurumena eta ondare publikoa zaintzea; ekonomia soziala edota enpresa ekintzailak bultzatzea; lehen sektorea, industria eta zerbitzuak garatzea; informazioaren gizartea garatzea; ikerkuntza zientifiko eta garapen teknologikoa; arrazoi fisikoak, ekonomikoak, kulturalak edo beste era batekoak direla eta baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonen sostengua eta laguntza ematea; aukera berdintasuna sustatzea; emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzea; indarkeria matxistak ezabatzeko eta horien biktima diren emakumeen laguntzeko lan egitea; garapen komunitarioa; Euskadiko hizkuntza eta kultura aniztasuna; animaliak defendatzea eta babestea; boluntarioria aldezteak; tolerantzia defendatzea.”

“8. Entitateak deseginez gero, haren ondare osoa mezenasgoaren onuradun izan daitezkeen entitateetako bati eman behar zaio (entitate hauek foru arau honen 19. artikuluan aipatzen dira) edo, bestela, interes orokorreko xedea daukan fundazio izaerarik gabeko erakunde publiko bati.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, irabazteko xederik gabeko entitateak deseginez gero, ondarea aurrezki kutxa edo banku fundazio baten gizarte lanerako bideratu ahal izango du, baldin eta hori berariaz ezarrita badago entitatearen fundazio negozioan edo estatutuetan.”

Bi. 17. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Foru arau honen 16. artikulua 1. apartatua aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenean esandakoa ez betetzea ere zergen arloko arau haustea da (salbuespena: memoria ekonomikoa egin edo aurkeztu beharra, 5. artikulua 13. zenbakian aipatzen dena). Hori gertatuz gero, entitateari zehapen modura ezarriko zaio titulu honetan ezartzen araubidea ezin aplikatu izatea; gainera, paragrafo honetan aipatzen den zehapena administrazio bidean irimo bihurtzen denetik aurrera, bost urtean ezin eskatu izango du araubide hau aplikatzeko.”

Hiru. 18. artikulua 5. apartatua 6. apartatua izango da hemendik aurrera, eta 5. apartatua gehitzen da; hona:

“5. Bidezko zerga administrazioak egiaztatzeko dituen ahalmenak eragotzi gabe, artikulua honetan ezartzen diren salbuespenak aplikatuko zaizkie, halaber, foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak bete eta honako hauek aplikatzen dituzten entitateei: 10/1996 Foru Legea, uztailaren 2koa, fundazioen eta babesletza jardueren zerga araubidea arautzen duena; 3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzkoa; 4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa; 49/2002 Legea, abenduaren 23koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzkoa; edo lehen aipatutakoak ordeztzen dituztenak, baita foru arau honen 19. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren entitateak ere.”

Lau. 19. artikulua 1. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Irabazteko asmorik gabeko entitateak, hain zuzen ere foru arau honen II. tituluan ezartzen den zerga araubidea aplikatu ahal zaienak, eta foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela, beste foru lurralde bateko edo lurralde erkideko irabazteko asmorik gabeko indarreko zerga araubidea aplikatzen dutenak.”

Bost. 19. artikulua 1. apartatuaren b) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“b) Arabako Foru Aldundia, gainerako foru aldundiak, Estatua, autonomia erkidegoak, toki erakundeak eta, orobat, erakunde autonomoak eta lehen aipatutako administrazioen antzekoak diren erakunde autonomoak.”

Sei. 39. artikulua lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Mezenasgoaren onuradun diren entitateek foru arau honen 5. artikuluan ezarritako betekizunak ez betetzeak edo foru arau honen 17. artikulua 2. apartatuaren azken paragrafoan edo 17. artikulua 3. apartatua arautzen diren zehapenak ezartzeak ez-betetze hori gertatzen den ekitaldiari dagozkion sartu gabeko zenbateko guztiak eta bidezko berandutze interesak ordaindu beharra ekarriko du, eragindako tributuari dagokionez eta haren araudi erregulatzailaren arabera. Betebehar hau foru arau honen III. tituluan arautzen diren zerga pizgarriak aplikatu dituenek ere edukiko dute, baldin eta loturarik badute mezenasgoaren onuraduna den entitatearekin edo onustean jardun ez badute.”

Zazpi. 40. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

#### **“40. artikulua. Elkarrekikotasuna**

Lehentasuneko mezenasgo jardueretarako eta interes publiko bereziko gertakariak sustatzeko programetarako foru arau honen 31. eta 32. artikuluetan ezartzen diren zerga pizgarriak Estatuko eta foru lurraldeetako organo eskudunek halakotzat jotzen dituzten jardueri eta programei aplikatuko zaizkie, baldin eta haiek onetsitako araudian elkarrekikotasunarekin aintzatesten badituzte Arabako Foru Aldundiak onetsitako jarduerak eta programak.”

### **III. TITULUA. EUOPAR BATASUNAREN ZUZENBIDEA MOLDATZEA**

#### **12. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 11. artikulua 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“3. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak ez dira egongo sozietateen gaineko zergaren kargapean, honako kasu honetan izan ezik: Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 31 bis artikulua 11. apartatua xedatzen duena aplikatzen zaienean.”

#### **13. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga**

Honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2022ko urtarrilaren 1etik sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 10. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“2. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek ez du ordainduko zerga hau, foru arau honen 31 bis artikulua 11. apartatua xedatzen den kasuan izan ezik.”

Bi. 25 bis artikulua 6. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Ez zaie aplikatuko kreditu eta aseguru entitateei.”

Hiru. 31 bis artikulua 11. eta 12. apartatuak aurrerantzean 12. eta 13. apartatuak izango dira, eta 11. apartatu berria gehitzen da; hona testua:

“11. Baldin eta errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate bateko unitate batek (edo artikulua honen 12. apartatua arautzen den lotura duten zenbait unitatek) urteko egunen batean ehuneko 50eko partaidetza edo handiagoa badauka, zuzenean zein zeharka, kapitalean, berezko funtsetan, emaitzetan edo botatzeko eskubideetan eta egoitza errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatea errentaren gaineko zergaren zergaduntzat jotzen duen herrialde edo lurralde

batean badauka, zergadun gisa ordaindu beharko du zerga egoitza errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatea errentaren gaineko zergaren zergaduntzat jotzen duten herrialde edo lurraldeetan duten partaideei egotzi behar zaizkien honako errenta positibo guztiengatik:

– Espainiakoa lurraldean lortutako errentak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapean egonik horretatik salbuetsita daudenak.

– Atzerriko errentak, ordaintzailearen herrialdeak edo lurraldeak eskatutako zerga bati lotuta ez daudenak edo zerga horretatik salbuetsita ez daudenak edo errenta horiek ordaintzen dituztenak, baldin eta errenta horiek ez badute beste ezein jurisdikzioren legeria fiskalaren arabera ordaintzen.

Zergaldia errentak lortzen diren egutegiko urtea izango da.

Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitateak eskuratutako gainerako errentak bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei esleituko zaizkie, eta horien gaineko karga ordainduko da, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoak, IV. tituluaren VI. kapituluaren 2. atalean xedatzen duenarekin bat etorritik.

Lau. 54. artikulua 12. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Paragrafo honi dagokionez, Foru Arau honen 31 bis artikuluko 1. apartatuko bigarren, hirugarren eta laugarren paragrafoetan eta 8. eta 12. paragrafoetan aurreikusitakoa aplikatuko da.”

Bost. 54. artikulua 13. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Paragrafo honi dagokionez, Foru Arau honen 31 bis artikuluko 1. apartatuko bigarren, hirugarren eta laugarren paragrafoetan eta 8. eta 12. paragrafoetan aurreikusitakoa aplikatuko da.”

#### IV. TITULUA. ZERGA IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO ZERGA NEURRIAK

##### 14. artikulua. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra

Lehenengoa. Aldaketa hauek egiten dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean (2022eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Hemeretzigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hemeretzigarrena. Atzerrian dauden ondasunen eta eskubideen gaineko informazioa eman beharra.

Zergapekoek ondoko informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari, foru arau honen 29. eta 90. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik eta arauz ezartzen den bezala:

a) Banku edo kreditu trafikoa aritzen diren atzerriko entitateetan irekita dauzkaten (titular diren) kontuei buruzko informazioa, bai eta baimenduta dauden edo dirua erabiltzeko ahaleen bat duten entitate horietako kontuei buruzko informazioa ere.

b) Denetariako entitateen sozietate kapitalaren, funtsen edo ondarearen adierazgarri edo norberaren kapitalak hirugarrenei laga izanaren adierazgarri izanik atzerrian kokatuta edo gordailatuta dauzkaten (titular diren) titulu, aktibo, balore edo eskubideei buruzko informazioa, bai eta atzerriko entitateekin hartzaile gisa kontratatutako bizi edo elbarritasun aseguruiei buruzko informazioa eta halako entitateei kapitala (dirutan), ondasun higigarriak edo ondasun higiezinak eman izanaren ondorioz onuradun diren biziarteko edo aldi baterako errentei buruzkoa ere.

c) Titular diren atzerriko ondasun higieziinei eta ondasun higiezinaren gaineko eskubideei buruzko informazioa.

d) Titular diren ondasun higigarriei eta horien gaineko eskubideei buruzko informazioa, betiere bakoitzaren balioa 50.000,00 eurotik gorakoa bada eta, arauetzehazten den unean, atzerrian baldin badaude edo atzerrian egon badira.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, bakoitzaren balioa, merkatuan duen ohiko balioa izango da.

e) Titular diren ondasun higigarriei edo horien eskubideei buruzko informazioa, atzeritar herrietan matrikulatuta edo herri horietako erregistroan agertzen badira.

f) Atzerrian dauden moneta birtualei buruzko informazioa, baldin eta moneta horiek onuradunak edo baimenduak badira edo beste moduren batean xedatzeko ahalmena badute. Moneta horiek hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak gordetzeko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak edo erakundeek zaintzen dituzte, moneta birtualak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko.

Aurreko letretan arautzen diren betebeharrak honako hauek ere bete beharko dituzte: kapitalak zurtzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legeak 4. artikulua 2. apartatua ezartzen duenaren arabera benetako titularrak direnek.”

Bigarrena. Aldaketa hauek egiten dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 47. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

**“47. artikulua. Pertsona edo entitate ez-egoiliarren ordezkaritza**

Zergen Administrazioarekiko harremanetarako, egoitza Espainiako lurraldean ez daukaten zergapekoek ordezkari bat izendatu beharko dute zergen arloko araudiak berariaz ezartzen duenean.

Izendapena Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio zergen arloko arautegian ezartzen den bezala.”

Bi. 78. artikulua oraingo 5., 6. eta 7. apartatuen zenbakiak aldatzen dira eta oraindik aurrera 6., 7 eta, 8. apartatuak izango dira, eta 5. apartatu berria gehitzen da:

“5. Baldin eta etendura automatikoa lortzeko behar direnak ez beste berme batzuk eskatzen diren etendura eskaera bat, bermeak jarri beharretik erabat edo modu partzialean salbututa dagoen etendura eskaera bat edo errore aritmetikoa, materiala edo egitatezkoa oinarritzat hartutako etendura eskaera bat izapidetzean zentzuzko zantzuren batek erakusten badu betearazpena eten nahi zaien zorren kobrantza zapuztu daitekeela edo erabat zaildu daitekeela, kautelazko neurriak ezarri ahal izango dira zorren kobrantza ziurtatzeko, eta, gainera, aurretik ezarritako kautelazko neurrien indarraldia luzatu ahal izango da.”

Hiru. 109. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

**“109. artikulua. Zergapekoak etxean sartzeko baimen judiziala**

Zergak aplikatzeko jarduketetan eta prozeduretan zergapeko baten egoitzan sartu behar bada edo hura miatu behar bada, Zerga Administrazioak zergapekoaren adostasuna edo epailearen baimena lortu behar du, egoitza Konstituzioaren babespean baitago

Egoitza horretan sartzeko erabakia betearazteko baimen judizialaren eskaerak behar bezala justifikatuta egon beharko du, eta sarrera horren helburua, beharra eta proportzionaltasuna arrazoitu beharko ditu.

Baimen judizialaren eskaera eta emakida egin ahal izango dira, prozedura formalki hasi aurretik ere, baldin eta sarrera erabakian zergapekoaren identifikazioa, egiaztatuko diren kontzeptuak eta aldiak jasotzen badira eta organo judizialari ematen bazaizkio.”

Lau. 136. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“2. Ikuskapen jarduketarako beharrezkoa izanez gero, zergak ikuskatzen dituzten funtzionarioak, arau bidez ezarritakoari lotuta, jarraian adieraziko direnetan sartu ahal izango dira: finketan, negozio lokaletan eta kargapeko jarduerak edo ustiapenak egiten diren, zergapeko ondasunak dauden, zerga egitateak edo zerga betebeharren egitateak gertatzen diren edo haien frogaren bat dagoen gainontzeko establezimendu zein toki guztietan.

Zerga ikuskapeneko funtzionarioak aurreko paragrafoan aipatzen diren lekuetan sartzeko, erregelamendu bidez zehazten den organoaren sarrera erabakia beharko da, zergapekoak edo hura zaintzapean daukan pertsonak adostasuna adierazi ezean.

Ikuskapen jarduketak egiteko beharrezkoa bada Konstituzioaren babesa daukan zergapekoaren etxebizitzan sartzea, foru arau honen 109. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da. Baimen judiziala eskatzeko, aipatutako artikuluan jasotako sarrera erabakia erantsi beharko da, erregelamendu bidez zehazten den administrazio agintaritzak sinatua.”

Bost. 180. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura, kasuen arabera, honako hau izango da:

a) Erantzukizuna eratorritako zorra ordaintzeko hasierako borondatezko aldia amaitu baino lehenago deklaratu bada eta erantzuleari jakinarazi bazaio, nahikoa izango da epealdi hori igarotakoan ordainketa egiteko eskatzea.

b) Gainerako kasuetan, zorra ordaintzeko borondatezko aldia igaro eta gero, organo eskudunak erantzukizunaren deklarazioa egingo du eta erantzuleari jakinaraziko zaio.”

Sei. 186. artikulua 1. apartatuari i) letra gehitzen zaio; hona testua:

“i) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren entitate taldearen araubide bereziko entitate nagusia.

Zazpi. 257. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio; hona testua:

“5. Europar Batasunaren ordenamenduaren arabera estatuko laguntza diren zerga onurak ezin izango dituzte jaso legez kanpokotzat eta barne merkatuarekin bateraezintzat jotako estatuko laguntzak jaso dituztenek, baldin eta Batzordeak, aldez aurretik, agindu bat eman badu laguntzak berreskuratzeko, harik eta laguntza horiek itzuli arte.”

Zortzi. Laugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“4. Esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena ALHAOn argitaratzen denean, zenbaki horrek zergen eremuan balioa galduko du identifikazio ondorioetarako.

Halaber, argitalpen horren arabera, kreditu entitateek ez dute zordunketarik edo ordainketarik egingo ezeztatutako zenbaki horien titularrak titular edo baimendu gisa agertzen diren bankuko kontu edo gordailuetan, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen denean izan ezik.

Ezeztapena entitate baten identifikazio fiskaleko zenbakiari badagokio, ALHAOn argitaratzeak berekin ekarriko du notarioa abstenitzea borondate aitortzei buruzko edozein tresna publiko, adostasuna ematea dakarten egintza juridikoak, kontratuak eta edozein motatako negozio juridikoak baimentzeko, baita edozein erregistro publikotan sartzeko debekua ere, administrazio erregistroak barne, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen ez bada. Ezeztapenak eragiten dion entitatea inskribatuta dagoen erregistro publikoak, entitate motaren arabera, bazterreko ohar bat egingo du entitate horri irekitako orrian. Ohar horretan jasoko da hemendik aurrera ezingo dela entitate horri eragiten dion inskripziorik egin, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen ez baldin bada.

Salbuespen gisa, aurreko paragrafoan aipatutako bazterreko oharra ezerezteko ezinbestekoak diren izapideak egitea onartuko da.

Era berean, ezeztatutako zenbakiaren titularra den entitatearen erregistro ziurtagiri guztietan zenbaki hori ezeztatuta dagoela jaso behar da.

Apartatu honetan xedatzen dena gorabehera, falta diren zerga betebeharrak bete beharko dira. Hala ere, ezeztatutako identifikazio fiskaleko zenbakia duten autolikidazioak, aitortpenak, komunikazioak edo idazkiak onartzeko, identifikazio fiskaleko zenbaki hori birgaitu egin beharko da, erregelamenduz ezarritako moduan.”

Bederatzi. Hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hamabosgarrena. Jurisdikzio ez-kooperatiboaren definizioa.

1. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartuko dira xedapen gehigarri honen hurrengo apartatueta ezartzen diren irizpideen arabera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituen herrialdeak eta lurraldeak, bai eta zerga araubide kaltegarriak ere.

2. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialdeen eta lurraldeen zerrenda honako irizpide hauen arabera eguneratu ahal izango da:

a) Gardentasun fiskalaren arloan:

1) Herrialde edo lurralde horrekin zerga informazioaren trukearen arloko elkarlaguntzari buruzko araudia izatea, foru arau honetan ezarritako moduan.

2) Espainiarekin zerga informazioaren truke eraginkorra betetzea.

3) Zergen Alorreko Gardentasunaren eta Informazio Trukearen Foro Globalak egindako inter pares ebaluazioen emaitzak.

4) Benetako titularrari buruzko informazioa benetan trukatzeko, kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko Espainiako araudian ezarritako moduan definituta.

a) letra honen ondorioetarako, informazio truke eraginkortzat jotzen da zerga informazioaren trukearen arloko elkarrekiko laguntzari buruzko araudia aplikatzea, Zerga Helburuekiko Gardentasunaren eta Informazioa Trukatzeko Foro Orokorra onartutako erreferentzia baldintzak kontuan hartuta.

b) Herrialde edo lurralde horietan benetako jarduera ekonomikorik islatzen ez duten onurak erakartzera bideratutako lurraldez kanpoko tresnak edo sozietateak egiten edo existitzen laguntzea.

c) Tributazioa baxua izatea edo tributaziorik ez izatea.

Herrialde edo lurralde bateko tributazioa baxua da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga bezalako edo antzeko zerga baten karga tasa Arabakoa baino askoz baxuagoa denean (0 tasa barne).

Herrialde edo lurralde batean ez dago tributaziorik pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga bezalako edo antzeko zergarik aplikatzen ez bada.

Zerga horiek bezalakotzat edo antzekotzat joko dira errenta, zati batean besterik ez bada ere, kargatzen duten zergak, zergaren xedea errenta bera, sarrerak edo errenta dagoelako zantzua ematen duen beste edozein elementu izatea gorabehera.

3. Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren araubide fiskal kaltegarrien zerrenda eguneratu ahal izango da Europar Batasuneko enpresa fiskalitatearen arloko Jokabide Kodearen edo Ekonomia lankidetzeta eta garapenerako antolakundeko (ELGA) Araubide Fiskal Kaltegarrien Foroaren irizpideen arabera.

4. Zerga bakoitzaren arauetan berezitasunak ezar daitezke xedapen honetako arauak aplikatzeko.

5. Xedapen honetan ezarritakoarekin bat etorritz, jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialde edo lurraldeei dagokienez, baldin eta Espainiak hitzarmen bat sinatu badu haiekin indarrean dagoen zergapetze bikoitza saihesteko, jurisdikzio ez-kooperatiboekin lotutako zerga araudia ere aplikatuko da, betiere hitzarmen horretako xedapenen aurkako ez bada.”

Hamar. Hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 6. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“6. Frogagiriak, finantza kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen eska dakizkiekeen adierazpenak eta xedapen gehigarri honetan aipatzen diren informazioaren eta eginbide egokiaren betebeharrak betetzeko erabiltzen den gainontzeko informazioa Zerga Administrazioaren eskura egon beharko dira finantza kontuei buruzko informazioa eman behar den urtearen ondoko bosgarren urtea amaitu arte.”

Hamaika. Hogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona testua:

“Hogeita seigarrena. Zerga paradisuaren eta informazio truke eraginkorrik ez dagoen herrialdeen eta lurraldeen aipamenak arautegian, eta tributaziorik ez dagoen edo tributazioa baxua den herrialde eta lurraldeena.

1. Arautegian zerga paradisuak, informazio truke eraginkorrik ez dagoen herrialdeak edo lurraldeak, edo tributaziorik ez dagoen edo tributazioa baxua den herrialdeak edo lurraldeak aipatzen direnean, ulertuko da foru arau honen hamabosgarren xedapen gehigarrian arautzen diren jurisdikzio ez-kooperatiboaren definizioa aipatzen dela.

2. Foru arau honen hamabosgarren xedapen gehigarriaren 2., 3. eta 4. apartatuen aipamenak ezabatutzat joko dira (2023ko urtarrilaren 1era arte indarrean egon den testua).

3. Zergen arloko informazio truke eraginkorra duten estatuei egindako arau aipamenak zergen arloko informazioa trukatzeko elkarrekiko laguntzari buruzko araudia duten estatuei egindakotzat hartuko dira, foru arau honetan ezartzen denarekin bat etorritz betiere.”

Hamabi. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, bosgarrena; hona testua:

“Bosgarrena. Jurisdikzio ez-kooperatiboaren kontsiderazioaren aplikazio iragankorra.

Foru agindu bidez jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialdeak edo lurraldeak zehazten ez diren bitartean, halakotzat hartuko dira Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegian xedatutakoaren ondorioetarako paradisu fiskaltzat hartu behar diren herri eta lurraldeak zehazten dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 7ko 435/1992 Foru Dekretuan ezartzen diren herrialdeak eta lurraldeak.”

Hirugarrena. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 92 ter artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

**“92 ter artikulua. Zerga betebeharrak nabarmen betetzen ez diren egoeren publizitatea**

1. Zergen Administrazioak Foru Ogasunari zordunen zerrendak aldi behin argitaratzea erabakiko du, zerga zorren edo zerga zehapenen erantzule solidario deklaratuak izan direlako zordun direnak barne, honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Ordaintzeko dauden zerga zorren eta zehapenen zenbateko osoa, betiere erantzukizun solidarioa aitortu ondoren eskatutakoak barne, 600.000,00 eurotik gorakoa izatea.

b) Zerga zor edo zerga zehapen horiek ez ordaintzea borondatez ordaintzeko epealdian.

Erantzukizun solidarioa adierazteko erabakian sartutako zorren kasuan, beharrezkoa izango da foru arau honen 61. artikulua 2. apartatuan ezarritako ordainketa epealdia igarotzea, erantzukizuna adierazteko erabakia eta, bidezkoa denean, ordainketa eskatzeko erabakia jakinarazi ondoren.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira sartuko geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zerga zorrak eta zerga zehapenak.

2. Zerrenda horietan honako informazio hau jasoko da:

a) Zordunen identifikazioa zehaztasun honen arabera:

– Pertsona fisikoak: izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

– Foru arau honen 35. artikulua 3. apartatuko pertsona juridikoak eta entitateak: izen sozial osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaintzeko dauden eta argitalpenerako kontuan hartu diren zor eta zehapenen zenbateko osoa.

3. Honako artikulu honetan araututako publizitatea Arabako Foru Ogasunari aplikatzeko eskumenak, zehatzeko ahalmena eta berrikusteko ahalmenak dagozkion zergei buruzkoa izango da soil-soilik, eta ez da aplikatuko Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeek haren aldeko eskumen eskuordetzea egin duten kasuetan.

4. Zerrendan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren zehazteko, argitaratzeko erabakiaren aurreko urteko abenduaren 31 hartuko da erreferentzia datatzat, dena dela erabaki horren egunean ordaintzeko dagoen zenbatekoa.

Zerrendan sartzeko proposamena eragindako zordunari jakinaraziko zaio, eta hark alegazioak aurkeztu ahal izango ditu hamar eguneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, jakinarazpen hori egin dela ulertzeko, nahikoa izango da Zergen Administrazioak egiaztatzea jakinarazpena egiten saiatu dela, edukiaren testu osoa pertsona edo entitate interesdunaren zerga egoitzan duela.

1. apartatuan adierazitako betekizunen inguruko errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak egoteari buruzkoak baino ez dira izango alegazioak.

Alegazio izapidearen ondorioz, administrazioak zerrenda zuzentzea erabaki ahal izango du, baldin eta modu frogagarrian egiaztatzen bada ez direla betetzen artikulu honetako 1. apartatuan zehaztutako lege betekizunak.

Zuzenketa hori ofizios ere erabaki ahal izango da.

Alegazioak egiteko epealdia amaitu baino lehen zor den zenbatekoa ordaintzen bada eta ondorioz ordainketa egin ondoren artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren ordaindu gabeko zerga zorren eta zerga zehapenen guztirako zenbatekoa 600.000,00 eurotik gorakoa ez bada, zordunak ez dira sartuko zerga zorreatatik edo zehapenengatik Ogasun Publikoari dirua zor dioten pertsonen zerrendetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den ordainketa gutxienez erreferentzia egunean zor den zenbatekoaren ehuneko 25 izan beharko da.

Aurreko bi paragrafoetan aipatzen den zenbatekoa ordaindu dela egiaztatutakoan administrazioak zerrenda berretsiko du.

Zuzendu beharrekoa zuzendu ondoren, Arabako Foru Aldundiari dirua zor diotenen zerrenda argitaratzeko erabakia emango du Arabako Foru Aldundiak.

Erabaki hori interesdunari egiteko jakinarazpena egintzat joko da hura eta Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkaten zerrenda argitaratzen direnean.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ezarriko dira argitalpen data (urte bakoitzeko lehen seihilekoan argitaratu beharko da) eta bidezko fitxategiak eta erregistroak.

Nolanahi ere, bitarteko elektronikoen bidez argitaratuko da, eta beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira edukia ez indexatzeko Interneteko bilatzaileen bidez, eta zerrendak ez dira eskuragarri egongo argitaratzen direnetik hiru hilabete igaro ondoren. Argitaratzeko behar diren datuen tratamenduak bete egin beharko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dago-kionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, baita abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere, Datu Digitalak Babesteari buruzkoa.

5. Artikulu honetan arautzen diren argitaratzeko erabakiak emateko eskumena Ogasun zuzen-dariak edukiko du.

6. Zerrenda argitaratzean, zehaztuko egingo da bertan adierazitako egoera 4. zenbakian jasotako erreferentzia datan dagoena dela, eta zordunak erreferentzia data horren ondoren egin-dako jarduketek ez dute eraginik izango zerrendaren argitalpenean, salbu eta paragrafo horretan adierazitako kasuetan eta baldintzetan ordainketa egiaztatzen bada.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezelako eraginik izango foru arau honetan ezarritako aurkaratze araubidean, zerga zorrak eta zerga zehapenak eragiten dituzten jarduketei eta prozedurei dagokienez, ez eta zergak aplikatzeko hasitako jarduketetan eta prozeduretan edo zerga horiekin lotuta geroago hasten direnetan ere.

Artikulu honetan ezarritako prozeduran egindako jardunek ez dute etenaldirik eragingo, artikuluan araututako informazio argitalpenari dagokionez, foru arau honen 67. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

7. Zerrenda argitaratzeko erabakiak administrazio-bidea amaituko du.”

### **15. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

Lehenengoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua aldatzen da (aldaketak 2022ko urta-rrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak), eta xedapen gehigarri horri bi apartatu gehitzen zaizkio, 6. eta 7. apartatuak; hona:

“2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren zerga-dunek informazioa eman beharko dute, arauz ezartzen denaren arabera, jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotako herrialde edo lurraldeekin egiten dituzten edo haiekin zuzenean edo zeharka loturiko balore edo ondasunen edukitzaren ondorio diren eragiketa, egoera, kobrantza eta ordainketei buruz.”

“6. Espainian egoitza duten pertsonak eta entitateek eta atzerrian egoitza duten pertsonak edo entitateek Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek, baldin eta hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak gordetzeko, moneta birtualak mantentzeko, biltegitzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen badituzte, eta zerbitzu hori nagusiki edo beste jarduera bati lotuta ematen badute, Zerga Administrazioari eman beharko diote mantentzen dituzten moneta birtual guztiei buruzko informazioa, betiere erregelamenduan ezartzen denarekin bat etorritik. Hornidura horretan, diru birtual desberdin bakoitzeko saldoei buruzko informazioa jasoko da, eta, behar denean, legezko erabilerako diruari buruzkoa, bai eta saldo horien titularren, baimenduen edo onuradunen identifikazioa ere.

7. Espainian egoitza duten pertsonak edo entitateek eta atzerrian egoitza duten pertsonak edo entitateek Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek txanpon birtualen eta legezko erabilerako diruaren arteko edo moneta birtualen arteko truke-zerbitzuak ematen badituzte, edo edoze-lan eragiketa horiek egiteko bitartekari gisa jarduten badute, edo inoren izenean gako kriptogra-fiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, moneta birtuala mantentzeko, biltzeko eta transferitzeko, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio arauetan ezarritakoaren arabera, moneta birtuala eskuratzeko, eskualdatzeko, trukatzeko eta transferitzeko eragiketak,

baita moneta horietan egindako kobrantzak eta ordainketak ere, haietan esku hartzen badute edo bitartekari gisa jarduten badute. Horretarako, esku hartzen duten subjektuen zerrrenda aurkeztu beharko da, hauexek adierazita: helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, txanpon birtualen mota eta kopurua, eta eragiketaren prezioa eta data.

Aurreko betebeharrak bera izango dute Espainian egoitza duten pertsonen eta entitateen eta atzerrian egoitza duten pertsonen edo entitateen Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrek, moneta birtual berrien hasierako eskaintzak egiten badituzte eta beste moneta birtual batzuen edo legezko erabilera diruaren truke ematen badituzte.”

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 48. artikulua 2. apartatuari c) letra gehitzen zaio; hona testua:

“c) Itzulketaren, eskualdatzearen edo, behar denean, harpidetzearen edo eskuratzearen xedea ez izatea azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren 79. artikuluan ezarritako mota bereko sozietateetako edo inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzak edo akzioak, direnak direla kotizatzen duten merkatu arautua edo negoziazio sistema aldeaniztuna eta erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziatzen hartzen duten indizearen osaera.”

Bi. Hamaseigarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Hamaseigarrena. Geroratze-araubidea aplikatzea inbertsio kolektiboko entitateetan 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako partaidetza edo akzio jakin batzuei.

Foru arau honen 48. artikulua 2. paragrafoaren c) letran ezarritako baldintza ez zaie aplikatuko c) letra horretan aipatzen diren inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzei edo akzioei, zergadunak 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu baditu eta Espainiako balore burtsan kotizatu ez baditu, errenboltoaren edo eskualdatzearen zenbatekoa ez bada aipatutako c) letran ezarritako inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko erabiltzen.”

#### **16. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga**

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 120. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa eta a) letra aldatzen dira, eta honela geratzen dira (aldaketek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

“1. Zergen administrazioak, interesduna entzun ondoren, behin-behineko baxaren erabakia eman ahal izango du kasu kasuetan:”

“a) Entitateak zergen administrazioarekin dituen zerga zorrei dagokienez erabateko kaudimengabeziaren ondoriozko kobraezintasuna deklaritzen denean, Arabako Lurralde Historikoko Diru-bilketaren Erregelamendu Orokorrean xedatutakoaren arabera.”

#### **17. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga**

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren 10. artikulua 1. apartatuaren hirugarren paragrafoa, 3. apartatuaren azken paragrafoa eta 4. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“Betebeharrak hau eskatu ahal izango zaie, halaber, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera zerga informazioa benetan trukutzen ez den herrialde edo lurraldeetan bizi diren pertsona edo entitateei, baldin eta Espainiako lurraldean betetzen edo baliatzen diren ondasunen edo eskubideen titularrak badira, bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatutako baloreak alde batera utzita.”

“Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera zerga informazioa benetan trukutzen ez duten herrialde edo lurraldeetan bizi diren pertsonen edo entitateen eska dakiekeen ordezkaria izendatzeko betebeharrak betetzen ez bada, Zerga Administrazioak bere ordezkaria zergadunen ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea dela jo ahal izango du.”

“Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, zerga informazioa benetan trukutzen ez den herrialde edo lurraldeetan bizi diren zergadunen kasuan, isun hori 6.000,00 eurokoa izango da.”

## V. TITULUA. EKONOMIA ZIRKULARRA SUSTATZEKO ZERGA NEURRIAK

### 18. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 62. artikuluen 4. apartatuaren a) letraren lehen bi paragrafoak aldatzen dira, eta honela geratzen dira (aldaketek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

“a) Kontzeptu hau dela eta zergaldiaren barruan egindako gastuen ehuneko 30.

Ikerketak eta garapenak eragindako gastuen helburu bakarra erregelamendu bidez ezarritako ondasunak eta produktuak berrerabiltzeko edota birziklatzeko jarduerak bat edo batzuk egitea bada, ehuneko 35. Hori dela-eta, ikerketak eta garapenak eragindako gastuen helburua ondasunak eta produktuak berrerabiltzeko edota birziklatzeko jarduerak egitea dela pentsatuko da erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betez gero.

Ikerketak eta garapenak zergaldian eragindako gastuak aurreko bi urteetan batez beste eragindakoak baino gehiago badira, batez besteko horretara iritsi arte aurreko paragrafoan ezarritako ehunekoa aplikatuko da, eta batez besteko horretatik gorako soberakinari ehuneko 50.”

### 19. artikulua. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren foru arauaren testu bateginaren 11. artikuluen 1. apartatuari f) letra gehitzen zaio (testu bategin hori irailaren 29ko 3/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi du). Letra berriak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hona testua:

“f) Kuotaren ehuneko 50eko hobaria, gehienez, zerga udal kuotaren bidez ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako xedea daukan jarduera ekonomikoa egiten badute.

Hori dela-eta, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutzat joko da hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea, konpontzea eta balorizatzea bada.

Zerga ordenantzan hobari ehuneko desberdinak ezarri ahal izango dira jarduera ekonomikoen arabera.

Hobaria aurreko letretako hobariak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio.”

### 20. artikulua. Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga

Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren foru arauaren testu bateginaren 8. artikuluen 1. apartatuari f) letra gehitzen zaio (testu bategin hori irailaren 29ko 5/2021 Araugintzako Foru Dekretuak onetsi du). Letra berriak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hona testua:

“f) Ehuneko 50eko hobaria, gehienez, ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako xedea duten jarduera ekonomikoen eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan.

Hori dela-eta, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutzat joko da hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea, konpontzea eta balorizatzea bada.

Zerga ordenantzan hobari ehuneko desberdinak ezarri ahal izango dira jarduera ekonomikoen arabera.

Letra honetan xedatutako hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuta ateratzen den kuotari ezarriko zaio.”

**VI. TITULUA. JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO ZERGA NEURRIAK****21. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauari beste artikulua bat gehitzen zaio, 90 quinquies (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak). Hona testua:

**“90 quinquies artikulua. Kenkaria jarduera ekonomikoa egiten jarraitzeagatik**

1. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek 800,00 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute, gizonetzakoak izanez gero, edo 1.000,00 eurokoa, emakumezkoak izanez gero, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Zerga sortzen den egunean jarduera ekonomikoa egiten urtebete baino gehiago eta bi urte baino gutxiago jardun izana.

b) Jarduera ekonomikoa hasi denerako norberaren konturako langileak edo langile autonomoak Gizarte Segurantzaren araubide berezian alta emanda egotea.

c) Langileok Gizarte Segurantzaren araubide berezian alta emanda egotea jarduera ekonomikoa egiten den artean.

d) Jarduera egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak edukitzea, eta jarduera ekonomikoa pertsonalki eta zuzenean egitea.

e) Jarduera ekonomikoa urte osoan egitea. Beraz, sasoiko edo asteburuetakoa jardueretan ezin da aplikatu kenkaria.

2. Artikulu honetako kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomikoa gutxienez bost urtean egitea eta aldi horretan aurreko apartatuaren c), d) eta e) letretan aipatzen diren baldintzak betetzea.

3. Artikulu honetan arautzen den kenkaria behin bakarrik aplikatu ahal izango da jarduera ekonomikoko batean.

4. Kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen ez badira, behar ez bezala jasotako diru kopuruak itzuli behar izango dira, bidezko berandutze interesekin. Itzulketa hori egingo da diru kopurua ez-betetzea gertatzen den zergaldiari dagokion kuota diferentzialari gehituz. Hala ere, zergadunak behar ez bezala kendutako diru kopuruak lehenago itzuli ahal izango ditu, bidezko berandutze interesekin.

5. Aurreko 1. apartatuan adierazitako zenbatekoraino kendu gabeko diru kopurua aplikatu ahal izango da ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan.”

**22. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga**

Bat. Zerga oinarri negatiboan konpentsazioa.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresek, enpresa txikiek eta enpresa ertainek, ez badaude foru arau horren VI. tituluaren VI. kapituluko araubide berezian, zerga oinarri negatiboak konpentsatu ahal izango dituzte foru arau horren 55. artikuluan 1. apartatuaren lehen paragrafoko muga kontuan eduki gabe, eta 55. artikulua horretan xedatzen dena bete beharko da

Bi. Aurreko lehen apartatuan xedatzen dena 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldietan aplikatuko da.

**23. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga**

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2015 Foru Arauaren 22. artikuluari 8. apartatua gehitzen zaio (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak). Hona testua:

“8. Aurrekoek zuzeneko ondorengoan alde edo adoptatzaileek adoptatuen alde eskudirutan egiten badute dohaintza hartzaileek jarduera ekonomiko bati ekiteko, dohaintzaren kuota ehuneko 95 murriztuko da.

Gehienez, aurreko paragrafoko murrizketa 50.000,00 euroko zenbatekoari aplikatuko zaio.

Aurreko paragrafoko gehieneko zenbatekoa eskudirutan dohaintza bakar bat eginez gero zein zenbait dohaintza aldi berean edo jarraian eginez gero aplikatuko da (aldi berekoak eta jarraikoak metatu egingo dira), aurreko edo adoptatzaile berak zein batzuek egin. Jarraiko zenbait dohaintza eginez gero, apartatu honetan arautzen den murrizketa, adierazitako mugarekin, murrizketa aplikatu ahal den lehen dohaintzaren aurreko sei hiletan egindakoei baino ez zaie aplikatuko.

Apartatu honetan arautzen den murrizketa aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Dohaintza hartzaileak jarduera ekonomikoa egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak eduki behar ditu, eta jarduera hori pertsonalki eta zuzenean egin behar du.

b) Dohaintza hartzaileak behin baino ezin aplikatu izango du apartatu honetan arautzen den murrizketa.

c) Dohaintza hartzaileak dohaintza egiten den egunean daukan ondare garbia (foru arau honetan ezartzen diren arauekin bat etorritz kalkulatu) ezin da izan 200.000,00 euro baino gehiago. Hori dela-eta, ondare garbian ez dira sartuko ohiko etxebizitza ez jarduera ekonomikoa egiteko erabiltzen diren ondare elementuak.

d) Dohaintza eskritura publikoan formalizatu behar da, eta hori dirua ematen denetik hila-bete pasatu baino lehen egiletsi behar da, edo, bestela, zerga administrazioari aurkeztutako dokumentu pribatuan. Batera zein bestera, berariaz adierazi beharko da dohaintza hartzaileak dohaintzako dirua apartatu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen jarduera ekonomiko bati ekiteko baino ez duela erabiliko. Gainera, dohaintza emailearen eta dohaintza hartzailearen arteko transferentzia aurkeztu behar da.

e) Jarduera ekonomiko bati ekin zaiola onartzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko berria modu errealean eta eragingarrian agertzea, eta jarduera hori lehen beste modu batean edo beste titulartasun batekin egina ez izatea.

f) Jarduera ekonomikoa urte osoan egin behar da. Beraz, sasoiko edo asteburuetako jardueretan ezin da aplikatu murrizketa.

g) Jarduera ekonomikoari dohaintza formalizatzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio.

h) Jarduera ekonomikoa ezin da izan ondare higigarria edo higiezina kudeatzea.

Gainera, apartatu honetan arautzen den murrizketa aplikatzeko, ezinbestekoa da dohaintza hartzaileak jarduera ekonomikoa gutxienez bost urtez egitea; gainera, aldi horretan aurrean aipatutako baldintzak bete beharko ditu, aldi horretan hiltzen ez bada.

Apartatu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen ez badira, egindako murrizketaren ondorioz ordaindu ez den kopurua eta horri dagozkion berandutze interesak ordaindu beharko dira.”

**24. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga**

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko mar-txoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 43. artikulua lehena apartatuari h) letra gehitzen zaio (2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak). Hona:

“h) Aurreko a) letraren salbuespen gisa, jarduera ekonomiko berri baterako zuzenean eta modu eragingarrian erabiliko den ondasun higiezin baten eskualdaketen gaineko karga tasa ehuneko 2,5ekoa izango da, honako baldintza hauek betez gero:

1. Ondasun higiezina eskuratzen duten pertsona guztiak jarduera ekonomikoa pertsonalki eta zuzenean egin behar dute, eta jarduera hori egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak eduki behar dituzte.

2. Jarduera ekonomikoari ondasun higiezina eskuratzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio.

3. Jarduera ekonomikoa urte osoan egin behar da. Beraz, sasoiko edo asteburuetako jar-dueretan ezin da aplikatu salbuespena.

4. Eskuratzailak gutxienez bost urtez egin behar du jarduera ekonomikoa.

5. Aurreko zenbakian ezartzen den aldian, gutxienez, ondasun higiezina jarduera ekonomi-koari atxikita egon behar da.

6. Ondasun higiezina ezin da eskualdatu apartatu honen 4. zenbakian ezartzen den aldian, honako kasu honetan izan ezik: eskualdaketa eragin duena jarduera ekonomikoa egiten duten pertsonetako baten edo batzuen heriotza izatea (haiei dagokien zatia baino ez).

7. Jarduera ekonomiko bati ekin zaiola onartzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko berria modu errealean eta eragingarrian agertzea, eta jarduera hori lehen beste modu batean edo beste titulartasun batekin egina ez izatea.

8. Jarduera ekonomikoa ezin da izan ondare higigarria edo higiezina kudeatzea.

9. Pertsona fisiko bakoitzari behin bakarrik aplikatu ahal izango zaio letra honetan arautzen den karga tasa.”

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehenengoa. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko arauak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 28. artikulua lehena apartatuaren b) letran aipatzen den ehuneko 15 izango da 2023ko zergaldian (horrexetan baino ez).

Bigarrena. Etekin garbia ardogileen jarduerari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza jar-duerei aplikagarria zaien zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erregelamendua onesten duen abuztua-ren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 33. artikulua lehena apartatuaren c) letran aipatzen den ehuneko 70 izango da 2023ko zergaldian (horrexetan baino ez).

Hirugarrena. Etekin garbia salgaiak errepidez garraiatzeko jarduerari aplikagarria zaien zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua onesten duen abuztua-ren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 34. artikulua lehena apartatuaren d) letran aipatzen den ehuneko 70 izango da 2023ko zergaldian (horrexetan baino ez).

Laugarrena. Gastuei buruzko arau berezia.

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 32. artikulua 4. apartatua mikroenpresentzako ezarritako zerga konpentsazioari dagokion ehuneko, neurriak dakartzen zailtasunengatik aplikatu daitezkeena, ehuneko 15 izango da 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan (horietan baino ez), eta 32. artikulua 4. apartatuaren gaineko edukia aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldietan baino ez da aplikatuko.

Bosgarrena. Mikroenpresek edo enpresa txikiek garatzen dituzten ikerketako eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuan parte hartzea.

1. 2022an edo 2023an mikroenpresa edo enpresa txikia diren entitateek garatzen dituzten ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuan parte hartzen duten zergadunek, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, foru arau horren 64 bis artikuluan arautzen den kenkaria aplikatu ahal izango dute bertan ezartzen denari jarraikiz eta honako xedapen hauekin:

a) Ez da aplikatuko Sozietateen gaineko Zergaren foru arauaren 64 bis artikulua 2. apartatuaren c) letraren a') letran xedatzen den betebeharra.

b) Ez da aplikatuko artikulua horren 5. apartatuaren lehen paragrafoan ezartzen den muga.

c) Artikulu horren 5. apartatuaren bigarren paragrafoan ezartzen den muga honako hau izango da: 1.000.000,00 euro proiektuko.

2. Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektu hauei aplikatuko zaie aurreko apartatua xedatutakoa:

Bat. 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldiei baino ez zaie aplikatuko:

a) 2022an hasitakoei.

b) 2023an hasitakoei, baldin eta aipatutako 64 bis artikulua 2. apartatuaren d) letran aipatutako finantzaketa kontratua 2022an formalizatzen bada.

c) 2022an baino lehen hasitakoei, baldin eta finantzaketa kontratua zergaren foru arauaren 64 bis artikulua 8. apartatua xedatutakoaren arabera aldatu bada.

Bi. 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldiei baino ez zaie aplikatuko:

a) 2023. urtean hasten direnei.

b) 2024. urtean hasten direnei, 64 bis artikulua 2. apartatuaren d) letran aipatzen den finantzaketa kontratua 2023an formalizatzen bada.

c) 2023 baino lehen hasitakoei, baldin eta finantzaketa kontratua zergaren foru arauaren 64 bis artikulua 8. apartatua xedatzen den bezala aldatzen bada.

3. Xedapen gehigarri honetan araututako kenkaria aplikatu ahal izango dute, halaber, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua aplikagarri duten establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta zergadun horiek ez badute egoitza fiskala jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen den herrialde edo lurralde batean, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz.

Seigarrena. TicketBAI betebeharraren salbuespena: jarduera ekonomiko nagusiaren lagungarri edo osagarri baino ez diren ondasun emateak edota zerbitzugintzak, laguntzarik gabe erabiltzen diren makina edo gailu automatikoen bitartez egiten direnak.

Zergapekoek ez daukate berehala banan-banan bidali beharrik honako eragiketa guztien XML fitxategiak: jarduera ekonomiko nagusiaren lagungarri edo osagarri modura laguntzarik gabe erabiltzen diren makina edo gailu automatikoen bitartez egiten direnak.

Jarduera bat lagungarri edo osagarritzat hartuko da eragiketen bolumena ez bada zergadunaren jarduera nagusiaren ekitaldiko eragiketa guztien bolumenaren ehuneko 15 baino gehiago, eta jarduera nagusia ekitaldian eragiketa bolumena handiena daukana izango da. Jarduera berri bati ekinez gero, baldintza betetzat joko da..

TicketBAI betebeharra betetzeko, Zerga Administrazioari bidali behar zaio azkenekoz datuak atera zirenetik edo kontagailua edo antzekoa irakurri zenetik egindako eragiketa guztien XML fitxategia, edo hilean behin gutxienez, gorde beharreko EVA-DTS fitxategitik edo antzekotik ateratako datuez baliatuz.

Fitxategi hori sortzeko eta bidaltzeko, ez beste ezertarako, dokumentu edo frogagiri bat egin beharko da.

Zazpigarrena. PFEZen salbuespen batzuen luzapena.

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko 2021erako zerga neurriak onesten dituen abenduaren 1eko 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 2. artikuluaaren bigarren apartatua xedatzen dena 2023ko zergaldirako luzatzen da.

Zortzigarrena. Kenkaria ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeagatik.

Bat. 2023ko zergaldian zergadunek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osotik kendu ahal izango dute beren jabetzako finkan edo komunitate garajeen beren jabetzako eta erabilera partikularreko ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeko ordaindutako diru kopuruaren ehuneko 15. Instalazio horiek 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasi behar dira.

Bi. Aurreko lehen apartatua arautzen den kenkaria aplikatzeko, indarreko legerian eskatzen diren baimenak eduki behar dira.

Hiru. Aurreko lehen apartatua arautzen den kenkariaren oinarriak muga dauka: 15.000,00 euro. Hori dela-eta, zergadunak ordaindutako diru kopuruak frogatu beharko ditu, eta horretarako faktura egokiak aurkeztu beharko ditu. Fakturek berei buruzko araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Lau. Kenkariaren oinarria osatzen duten diru kopuruetatik kendu behar da zergadunak konzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzen zenbatekoa.

Ordaindutako zenbatekoa aurreko hirugarren apartatua aipatzen den kenkariaren gehieneko oinarria baino gehiago izanez gero, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsitako dirulaguntzek kenkariaren oinarria txikituko dute modu proportzionalan.

Bost. Xedapen gehigarri honen lehen apartatua aipatzen diren instalazioak amaituta egon behar dira 2024ko martxoaren 31rako, eta ordura arte ordaintzen diren diru kopuruak aurreko hirugarren apartatua aipatzen den kenkariaren oinarrian sartuko dira.

Sei. Kenkari hau aplikatuz gero, finka edo garaje komunitario berean egindako instalazioak direla-eta ezin aplikatu izango dira honako bi kenkari hauek: batetik, ekainaren 23ko 8/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 5. artikuluan aipatzen den kenkaria (dekretu horren bidez onesten da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergako eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko

dokumentatuen gaineko zergako doikuntza neurriak, COVI-19rekin loturikoak); bestetik, abenduaren 1eko 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen den kenkaria (dekretu horren bidez COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko zerga neurriak onesten dira 2021erako).

Ondorioz, aurreko paragrafoan aipatzen diren kenkarietako bat aplikatuz gero, ezin aplikatu izango da artikulua honetan arautzen den kenkaria finka edo garaje komunitario berean egindako instalazioak direla-eta.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Zerga betebeharrak nabarmen betetzen ez diren egoeren publizitatea.

Foru arau honen 14. artikulua hiru garren apartatua Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 92. ter artikulua biltzen diren aldaketak 2024an argitaratuko den zerrendarako aplikatuko dira lehenengoz. Zerrenda horretan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direnez ebazteko erreferentzia eguna 2023ko abenduaren 31 izango da, 92. ter artikulua 4. apartatua ezartzen denarekin bat etorritik.

Bigarrena. Lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeak 2023tik aurrera.

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikulua 1. apartatua ezartzen dena erregelamendu batean garatzen ez den bitartean, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeak finkatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudian xedatzen dena hartuko da aintzat.

Hirugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 93.bis artikuluan araututako kenkaria.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 93. bis artikulua, foru arau honek emandako testuaren aurreko idazketan, 2022ko zergaldian baino ez du izango indarra.

Foru arau honek emandako idazketaren aurreko 93. bis artikuluan xedatutakoa aplikatzen duen zergadunak ezin izango du aplikatu, 2022ko zergaldian, aipatutako 93. bis artikuluko kenkari berria, foru arau honek emandako idazketaren arabera.

Laugarrena. Zerga ordenantzak moldatzeko epealdia.

Toki erakundeek 2023ko ekainaren 30era arteko epealdia edukiko dute zerga ordenantzetan behar diren aldaketak egiteko, araudia foru honetan ezarritakora moldatzeko.

#### XEDAPEN INDARGATZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean xedapen orokor hau, salbu ondorioak sortzen hasteko egun jakin bat esleituta duten arauak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 23a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**